



# ARGIA



IPAR EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA POLITIKA JOKOAN

## Ausardiaz jokatzeko deia euskaingintzatik

24-29. orrialdeak

#2852 | 2023 / 12 / 24 | 4,00 €



**Zabor  
elektronikoak,  
txiroenen kalterako**

12 | INGURUMENA



**“Euskaldunok apur  
bat kolonizatuta  
gaude”**

14 | AMAIA GABANTXO



**“Kitxuaz kantatzea  
tendentzia da egun”**

44 | CARLOS SANTIAGO MORETA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #291  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ESPOLIAZIO FRANKISTA

IBEX35 ETA EUSKAL OLIGARKIAREN ERROAK

ARGIA.EUS/LARRUN

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | SONIA GONZÁLEZ
- 21 | KIMETZ ARANA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | ANDREA BARTOLO

## Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
NATALIA LÓPEZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: GARI GARAIALDE

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ZALDI ERO / ARGIA CC-BY-SA

### 34 | KITXUA EKINTZAILE CARLOS SANTIAGO

Miel A. Elustondok egin dion elkarrizketan azaldu du nola hasi zen kitxua hitz egiten 12 urterekin, Kitxua Gazteen Elkarteari esker. Herritarrek kitxua hitz egiteko dituzten zailtasunen berri eman du, lege aldetik eta erakundeetan bertako hizkuntzak duen babesgabatasunaz mintzatu da... eta erremintez ere bai: boladan diren musika taldeek kitxuaz abesten dute, eta berak lan egiten duen irratia erabat kitxuaz mintzo da.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Zabor elektronikoen arautze ezak txiroenen osasuna kaltetzen du

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | AMAIA GABANTXO

### “Kultur biolentzia da euskal literatura gaztelaniazko bertsiotik itzultzea ingelesera”

Miel A. Elustondo

24 | EUSKARA IPAR EUSKAL HERRIAN

### Azken sokatirak, hizkuntza politika eraginkor baten alde

Jenofa Berhokoirigoin

30 | KAZETARITZA | JOXE FELIX AZURMENDI

### “Kazetaritzan konpromisoa mantentzen jakin behar da, profesionaltasuna galdu gabe”

Ciria Crespo

44 | KULTURA | ARTEA

### Aldaketa bizi

Jone Alaitz Uriarte

46 | KULTURA | ZINEMA

### Westernaren mugak

Julen Azpitarte

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

Amaitz Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzaz interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA







## Ez dira neutralak

Microsoftek zentsuratu egin ditu bere langileen artean Palestinari eta Israeli buruz izandako eztabaidak. Twitter/X-ko buru Elon Musk estatuburu gisa hartu dute Israelen, eta bere Starlink satellite bidezko komunikazio sarearen kontrola Gazan Netanyahuaren gobernuari eman dio. Metak (Facebook-Instagram) langileen palestinarren aldeko barne mezuak ezabatu ditu. Eta Google nabarmentzen ari da Nimbus proiektuagatik: 1.200 milioi dolarreko kontratua Israelgo Gobernuarekin, 2021eko uztailean indarrean sartu zena zazpi urterako. Horren bidez, Googlek eta Amazonek gobernu eta armada sionistari adimen artifizialeko (besteak beste, aurpegi-ezagutza) eta hodeiko (Google Cloud) zerbitzuak eskaintzen dizkiete.

Teknologia kapitalista eta haren sortzaile multinazionalak ez dira neutralak. Ez dezagun guk ere haiekin neutral jokatu.

 **AXIER LOPEZ**  Googlek Israelekin duen kontratuaren aurkako protesta, AEBetako San Frantziskon multinazionalak duen egoitza nagusiaren aurrean. **SANTIAGO MEJIA / AP**

# Antepararen “inpunitatea” salatu dute obrek kaltetutako bizilagunek

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

**A**lain Luxury enpresak Gasteizko Alde Zaharreko Hedegile kalean duen pisuaren azpiko etxebizitzan bizi da, lehen solairuan. Salatu du baimenik gabe burututako obren ondorioz kalteak izan zituela eta izaten ari dela oraindik ere etxean, eta Anteparak oldarkor eta gezurrekin erantzun diela bere eskaerei. Obra berdinegatik kaltetutako beste bi bizilagunen lekukotza ere jaso du ARGIAk labur-labur (elkarrizketak osorik daude gure webgunean). ARGIA Antepararekin harremanetan jarri da, baina ez du azalpenik eman nahi izan.

## Noiz hasi ziren arazoak?

Langileek eskailerak zikin eta hondakinekin uzten zituzten [2022ko urria], eta galdetu nien ea obra egiteko baimenik zuten: “Hori nire nagusiarekin hitz egin”. Gustavok etxeko atea jo zidan tarte batera. Esan zidan ez zuela zertan lizentzia jarri behar, nik esan nion legez jarri beharra zuela ikusgai. Eztabaidan hasi ginen, eta azkenean onartu zidan baietz, baina ez zuela jartzen atarian jende arraroa sartzen omen zelako. Ondoren jakin nuen ez zuela lizentziarik.

Geroztik ura iragazi da hainbat aldiz bere pisutik nirera. Seguruarekin asko borrokatu ostean lortu nuen 2.400 euroko kalte-ordaina, kalteak eragin zizkidalako telebistan, ordenagailuan, altzairue-

tan, lurrean... Zortzi aste eman genituen etxetik kanpo hezetasunengatik. Arazoe-kin jarraitzen dugu.

## Markel: “Babesgabe sentitzen naiz, noraino iritsiko gara?”

Atariko behe solairuan bizi da Markel (nahiago du bere egiazko izena ez eman). Haserre azaldu du Luxury obrak hastean bere tximiniaren hodia apurtu zutela langileek, hondakinekin patioko landareak eta arropa eskegitzeko sokak apurtu zizkiotela, edo langileek ataria hautsez beteta uzten zutela, eta etxera sartzen zitzaiola. Anteparari esan zion ataria garbitu beharra zuela: “Esan zidan ez ziela hori eskatzen langileei aparte ordaindu beharko ziekeelako”.

Obraz geroztik hainbat aldiz izan ditu hezetasun arazoak, azkena orain bi asteburu. “Niri eta Alaini esan zigun ur hori ez zela berea, ondoko atariko etxetik zetorrela, hormaren bestaldean komuna zegoelako. Joan ginen etxe horretara eta ez zegoen komunik han, logela baizik”.

## Susana: “Logelako horma apurtu zidaten”

Susana da Alain eta Markelen ondoko atariko bizilaguna. Zeharo harrিতa mintzo da. “Azaldu didate Anteparak esan diela dituzten ur filtrazioen errua ondoko atariko “histerikoarena” dela, nigatik”. Kontatzen duenez, kontrara, bera kaltetua da, ez kalte sortzailea: “Obrekin hasi zirenean [2022ko urrian], izugarriko kolpeak entzun, logelara etorri eta horman arrakala handi bat ikusi nuen”. Udaltzaingora deitu zuen, orduan antzeman zituen udalak baimenik gabeko eraberritzen lan integralak. Bere aseguru etxea eta Luxuryrena gatazkan daude orain, kalteak nork ordainduko.

## Aipatu didazu Antepararekin tratua ez dela erraza.

Errespetu eta zuzentasun handiz hitz egiten dizu... kontra egiten diozun arte. Orduan harrotu egiten da, altu hitz egiten hasten da, atzamarrak seinalatzen ohitura du, eta gehien errepikatzen duen esaldia da, “Niri ez eman arazorik, ohartarazten zaitut”.

## Luxuryren administratzaile kargua utzi zuen Anteparak 2022ko uztailean ofizialki. Kontatzen duzunagatik, ordea, etxearen gorabeherak kudeatzen ditu gaur egun ere.

Autoa hemen ondoan aparkatzen du eta ikusten duzu langileekin gestioak egiten. Etxea alokatuta izan duenean ere pasatu izan da, gauzak utzi edo eramatera. Hemendik jendea pasatu baita, etxebizitza pisu turistiko gisa erregistratuta ez badago ere.

## Perosanz Arabatur elkartearen presidentea da aldi berean, pisu turistikoaren araudia aldatzen saiatzen ari den elkarte. Anteparak PPko kide esanguratsua da Gasteizen. Esango zenuke elkarrekin egiten dutela lan?

Bai, agerikoa da.

## Udalak 500 euroko isuna jarri dio Luxuryri zuen atariko obrak baimenik gabe egiteagatik, araudiak aurreikusten duen kopururik txikiena.

Gutxi iruditzen zait obrak lizentziarik gabe egiten dituela eta eraikinak kaltetu ditzakeela kontutan hartuta. Dena den, ez dut ezer espero udaletik, ezagutzen baitu zer gertatzen ari den. Ez da sinesgarria bere alderdian hau guztia ez ezagutzea, ezta udalean oro har ere, hauteskunde zerrendan zazpigarrena izan zen. Jakin badakite, galdera da zergatik duen gizon honek tamainako inpunitatea. Ote den gainontzeko alderdiek ere bere Anteparak propioa dutelako, eta ondorioz elkarren aurka ez egiteko nolabaiteko paktua duten. Penagarria iruditzen zait, baina ez dut ezer espero. ●

Alain, Hedegile kaleko bere etxebizitzan.



## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Eskerrik asko



UXUE APAOLAZA LARREA

Zer egin dizute, maitea?”. Egunkari baten aurrean nago, berriro, bista apartatu beharrez, arnasa hartzeko. Tortura lekukotzekin gertatzen zitzaidan. Gertatzen zait, oraindik, dirudienez. “Prozesuko dokumentuetako gertaerek hiru urte baino gehiago iraun zuen biolentzia sexuala deskribatzen dute, 1998an, biktimak 13 urte zituela hasi zena”.

Dardara batzuek garuneko geruza sakonen batean sortuak dirudite. Memoria dute, eta ez dira samurragoak horregatik, kontrakoa: martxan darraielat badakigun makinaria batek azpian harrapatu du, denen begien bistan, Gernikan, eta berari ez bada, beste norbaiti gertatzen ariko zaio orain. Gizartea gerta dadin prestatuta dagoelako. Eta ez dira gure besoak denak babestera iristen. Eta espiral ilunetan barrena galtzen gara, bakoitza geure etxean.

Etxera deitzen zion, eta biktimak joatea beste aukerarik ez zuela sentitzen zuen. Borondatea erauzi zion, esklabo bat zuen. Hamahiru urteko haur bat zen, hogeita hemezortziko heldu bat orain: hori ez dira hiru urte, ez, hori lapurtutako bizitza oso bat da. Eta erabaki zuten ez zuela balio, bizitza horrek ez zuela balio, eta erasotzailearenak bai, bi bizkarreko, gizon klasiko bat.

Baina, berez, “begira zer egin duzun, maitea”. Hitz egiten duen emakume bakoitzak jartzen dio ispilua gizarteari: bakoitzak jakingo dugu nolako eta non ikusten dugun geure burua, begiratzeko ausartzen bagara. Kontatu duen izugarrikeriarekin, berez, ez du mendetako bataila galdu baten berri eman, nire gorputzak lehen kolpean sentitu bezala. Nire gorputza ez dago heroiak identifikatzeko prestatuta. Hori izatera behartu dugu, heroi. Geu salbatuko gaitu bere kalbarioak. Borondatea berreskuratu du, ez da esklabo bat, inporta dute bere bizitza urteek, noski pertsona dela, noski boterea duela. Ea ez duen gehiago izan behar. Herroi. Ea orain datorkion gerran erretagoardia sendoagoa ematen diogun. “Eskerrik asko, maitea, zeure esanetara”. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Politika

Euskal Herriko Kontseilu Sozialista aurkeztu dute, aurrerantzean Mugimendu Sozialistaren erreferente politiko nagusia izango den antolakunde berria. “Komunismoa langileon artean hegemoniko bihurtzeko” egingo du lan EHKS-k.

## Sexu erasoak

Gernikako Lointek saskibaloi klubeko entrenatzaile batek jokalaria nerabe bati egindako sexu-abusuak ikertzen ari dira. 1998 eta 2001 bitartean egindako “etengabeko” erasoak salatu ditu biktimak. Gernikako Sare Feministak klubaren “konplizitatea” salatu du.

## Heriotza

Abenduaren 15ean Patxi Noblia hil zen, 79 urterekin. Ipar Euskal Herriko arlo ekonomiko eta politikokoan pisu handia izan zuen. Besteak beste, Enbata mugimenduan aritu zen, Sokoa enpresa sortu zuen, eta tinko aritu zen euskal departamenduaren aldeko borrokan.

## EKONOMIA

# Agroekologia, alternatiba politiko bat



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**G**abonei buruz gaizki esaka behar baino gehiago jan eta edan, hondamendira garamatzen kontsumismoaren parte garena onartu eta gurutze hori eramangarria egiteko bidea aurkitu, etzidamu egunerokora itzuli arte. Askok egingo dugu hori, eta ez dut uste individualki eta etxean gotortuz mundua aldatzeko giltza bihurtuko garrenik. Elikaduraren auziari behar den lekua eta dimentsio politikoa eman eta saihestezina den eztabaida egitea, aldaketa sakonetarako giltzetako bat dela argi ikusi dut ordea EHNE Bizkaiaren jardunaldietan.

Jatea eta edatea funtsezkoak badira, galdera asko erantzun behar ditugu: zer jaten dugun eta nola eskuratzen dugun jatekoa; gure elikadura multinazionalen menpe jarraitzeak nora garamatzen; Euskal Herrian zer, zenbat eta nola ekoizten den; garaiako produktuak eskuratzeko bideak egokiak diren... Arakatu eta neurtu ditzagun gure elikadura premiak, zenbateko eta nolako lehen sektorea behar dugun jakin ahal izateko, eta alderatu dezagun gaur dugunarekin. Horrek ekarriko du arlo honetan egin behar diren politikak eta estrategiak diseinatzeko pertsonak izatea erabakigarriak, ez multinazionalak. Herri bezala egin behar dugun eztabaida da gainera, Euskal Herria bere osotasunean hartzeak egiten duelako posible Ipar Euskal Herrian ez dagoen lurzorua Arabako lautadan aurkitzea, edota Nafarroko makro-etxaldeen lurrazpiko urak kutsatzea guztion arazoa dela ulertzea.

Zaintza eskubidea erdigunean kokatzea lortu dugun honetan, elikadura erdigune horren parte egitea izan daiteke bide bat eztabaida horri dagokion lekua, garrantzia eta norabidea emateko. Agenda politikoetan lekua egiten dela ziurtatzea izan daiteke bestea. Baina izan dadila. ●

## ANALISIA



USA TODAY

## Gazako Deklarazioa

**XABIER LETONA BITERI**

**P**alestinaren herriaren egoera oso larria da arrazoi askorengatik, akaso britainiarrek 1917an Balfourreko Deklarazioa ezagutzera eman ondoren bizi duen konplexuena. Arrazoi askorengatik da hala. Bazen oso larria 2023ko urriaren 7aren aurretik, eta ondorengo Israelen eraso basatiak are gehiago okertu du, bereziki Gazan, baina baita Zisjordanian ere. Hil ala bizikoa lehen, hil ala bizikoa orain ere. Batetik, Balfourreko garai hartatik eta 1948an Israelgo Estatu sortu arte Erresuma Batuko, bereziki, eta Frantziaren sostengua izan zuen. Israel jaio zen Sobietar Batasunaren eta AEBen laguntzarekin, eta azken 75 urteotan azken horren itzalean bilakatu da erraldoi.

Honakoa da Balfourreko adierazpena, Wikipediaren itzulpenen: "Bere Maiesatearen Gobernuak ontzat ematen du Palestinan herri juduarentzako jaioterri nazional bat ezartzea, eta ahaleginik onenak egingo ditu helburu hori betetzen laguntzeko, argi eta garbi adieraziz ez dela Palestinan dauden komunitate ez-juduen eskubide zibil eta erlijiosoei edo beste edozein herrialdetako juduen eskubideei eta estatus politikoari kalte egingo liekeen ezer egingo".

Sinesgaitza da irudikatzea nola sei lerroko adierazpen batek eragin dezakeen halako txikizioa. Lerro horietan bi klabe giltzarri zegoen: batetik, juduei –"herri judu" izendatzen ditu– Palestinan "jaioterri nazional bat" izateko eskubidea aitortzen die. Eta, bestetik, zehazten du horrek ezin ditzakeela kaltetu lurralde horretan bizi diren komunitate ez juduak. Hala esanda, badirudi gehiengo handia judua zela Palestinan, eta palestinarrak komunitate txiki batzuk besterik ez zirela, baina justu alderantziz zen: palestinarrak %94 ziren eta juduak komunitate txiki horiek. Eta larriena da deklarazioak palestinarrak ez zituela izendatu ere egiten.

Balfourrek estatua sortzea ahalbidetu zion sionismoari, eta Israelek lehen existitzen ez zen herri bat eraiki zuen Palestinan, "juduen herria", 2018ko Israelgo Konstituzioak onartzen duen herri bakarra, ez baitie eskubide nazionalik onartzen palestinarek. 2012an NBek Palestinako Estatu onartu zuen, baina Israelek ez, beraz ez dago estatu palestinarrik. Horra Israelen indarraren neurria. Baina nola egiten da estatu bat lurrik gabe? Hori da oraindik orain bolo-bolo dabilen bi estatuen teoriak gauzatu beharko duen miraria.

Mende bat geroago palestinarek ez dute lortu Balfourreko Deklarazioari buelta ematea, baina larritasun horren baitan bada oraindik esperantzarako izpirik: mendebateko kolonizazio eta zapalkuntzaren ondoren, palestinaren erresistentziarako gaitasuna bizirik dago. Eta bada garaia idazteko Balfourrekoaren guztiz alderantzizko deklarazioa, esaterako Gazako Deklarazioa: "Erresistentziarako eta beren burua defendatzeko eskubideez gain, palestinarek eta Israelgo juduek badute elkarrekin eta bakean bizitzeko eskubiderik". Orain ez da posible, baina orain hasita akaso hiru hamarkada barru bai; Israelgo Estatu ere Balfourretik hiru hamarkadara sortu zen. ●



107

udalek osatzen dute UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, abenduaren 16an sei udalen eskaera onartu ostean. Zeanuri, Mendexa, Berrobi, Hondarribia, Lezo eta Azkoitia batu dira eta denen artean, 342.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dute.

18

pertsona kalean geratu dira etxegabeentzako Iruñeko aterpetxea inauguratu berritan. Hainbat taldek etxegabeei "babes integrala" bermatzeko exijitu diete Nafarroako Gobernuari eta Iruñeko Udalari.

%15

murriztera iritsi daiteke 2040an Pirinioetako ibaien ur emaria, Piragua ikerketak ohartarazi duenez. Ikerketak dio beharrezkoa dela Pirinioetako baliagai hidrikoen kudeaketa klima-aldaketara egokitzea.

*"Paralisi urteak atzean utzi nahi ditugu eta jendearen beharrei erantzuten hasi"*

**JOSEBA ASIRON**

Abenduaren 28an egingo den Iruñeko udal bilkurarako zentsura mozioa erregistratu dute EH Bilduk, PSNk, Geroa Baik zein Zurekin Nafarroa talde politikoeak. Hala, Cristina Ibarrola UPNko egungo alkatea kargutik kendu eta EH Bilduko Joseba Asironen hartuko du aginte makila.

2023-12-13



**"KOLAPSORA BIDERATZEN ARI DIRA LEHEN MAILAKO ARRETA"**

**NAFARROAKO OSASUN PLATAFORMA**

2023-12-13

*"Honek denak ez luke zentzurik izango sortzen den ilusio horrengatik guztiagatik ez balitz"*

**NEREA IBARZABAL SALEGI**

2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren irabazlea.

EITB.EUS (2023-12-17)



## Bazterkeriaren kutxak



DIANA FRANCO

**B**ada akronimo bat ezagutu berri dudana: BIPOC: Black, Indigenous (and) People of Colour. Bada hitz bat azkenaldian nire buruan oihartzun handia duena eta bazterkeriaren konplexutasuna ulertzeko balio didana: "Atalartekotasuna". Bada bizi dugun mementoa ulertzeko eta eraldatzeko behar dugun dinamika bat: berdintasunean harremanak egiteko guneak sortzea.

Berdintasunean harremantzeak ez du esan nahi denok berdina egin behar dugunik, baizik eta egiteko aukerak ahalik eta berdinenak izan behar dutela. Denok tresnak berdintasunean eskura izatea, alegia.

Borroka honetan gabiltzan bitartean, pintzipe txikiaren arrosa balitz bezala, kristalezko kutxa batean sartzen ditugu kulturak, arnaguneak sortzen dizkiegu. Kutxa horiek ez dira itxiak izaten, mundu guztia gonbidatuta dago kulturetara egokitzen. Tresnak eskura daude, baina tresna hauek erabiltzen ikastea askoren mundu ikuskera eta beharretarako ez da errentagarria.

Analogia bat jarrita, eraldaketa digitalaz dihardugunean, globalki izan duen inpaktua ikusita, arrakastaz hitz egiten da, geratzeko etorri den eraldaketa. Arrakala digitala pairatzen duen pertsona ugari dugu, ordea, kultura hau ulertzen ez duena, eta kutxa horretan sartzeko laguntza behar duena, bere kabuz tresna erabiltzen ikasteko gaitasun gutxi baitu.

Hondamendi ekologikoen, gatazkek eta Mendebaldeko bizimodu oparoaren itxaropenak, hedabide digitalek etengabe proiektatzen duten bitza onak... pertsona ugari erakarri du lur hauetara. Pertsona hauek ezer barik datoz, gure antolaketa sistemez ez dakite ezer, gure kultura ez dute ulertzen...

Jarraitu dezagun harremanetarako guneak irekitzen, Euskal Herrian arazo hauek guztiak gainditzeko bidean, ez baitira inoiz bukatuko arazoak, eta ez ditzagun BIPOC bezalako kutxak sortu. ●



## Bigarren aldiz, Pinocheten Konstituzioa "garaile"

AXIER LOPEZ

**E**z ezkerrek, ez ultraeskuinak, Txilen ez dute diktadura garaiko Konstituzioa aldatzerik izan, eskuindarren pozerako noski. Igande honetan txiletarren gehiengoak berriro esan dio ezetz Konstituzio proposamen berri bati.

Konstituzioa aldatzeko lehen proposamena kalean protestan ziren herritarrek eta herri mugimenduek bultzatu zuten, Gabriel Boric aurrerakoia presidentetzan zela jada. 2022ko irailaren 4an izan zen bozketa eta boto-emaitzen %62k baztertu egin zuen. Azken proposamenaren sustatzaile nagusi Jose Antonio Kast izan da, Pinocheten erregimenaren nostalgikoa, duela egun batzuk Santiago Abascalekin *selfie*ak egiten ari zena, beste burkide fatxa-friki bat Argentinako presidente kargua hartzen ari zela. Konstituzioa aldatzeko bigarren proposamenak ere ez du aurrera egin: igandean %56k ezetz esan du. Beraz, diktaduratik (1973-1990) datorren Lege Nagusiak indarrean jarraituko du.

Dena den, ezin dira bi prozesu konstituziogileak alderatu. Azken proroposamena askoz atzerakoiagoa izateaz gain, prozesuan herri-sektoreek ez dute ia inolako eraginik edo parte-hartzerik izan. Ezkerrek sustatutako prozesua, aldiz, 2019 amaierako eta 2020 hasierako matxinada sozialen ondoren sortu zen. Azken hau egungo kasta politikoren kontrolpean garatu da, eta horregatik analista askok azpimarratu dute deskonexio hori, Txileko gizartearen zati handi batek "politikarien kontu

baten" modura ikusi duela prozesua.

Igande honetako emaitza positibo bakarra da Kasten Alderdi Errepublikano ultraeskuindarraren asmoak porrot egin duela; izan ere, gobernuaren kudeaketari buruzko plebiszitu bihurtu nahi izan du bozketa eskuinak. Azpimarratzekoa da, aurreko erreferendumean ez bezala, Boric eta bere gobernuak ez dutela kanpaina aktiborik egin proposamen konstituzional atzerakoiaren aurka bozkatzeko. Jarrera "neutrala" izan dutela diote, politikan hori posible baldin bada.

Etorbizuna zalantzakoa da. Emaitzen ostean, Carolina Tohá presidenteordeak beste prozesu konstituziogile bat egiteko aukerari atea itxi dio.

Txilen gertatzen ari dena aztertze-ko modukoa da. Hiru urte eskasean, bi prozesu kontrajarri bizi izan ditu herrialdeak. Matxinada ikaragarria egin zuten, sistema kolokan jartzeko eta -emakume maputxe baten presidentetzapean- prozesu konstituziogilea abiatzeko gai izan zena. Eta hortik, denbora gutxian, mezu erabat neoliberal eta ultraeskuindarrak bere egin dituen eskuina berpiztu zen eta herrialdean izan diren azken hauteskundeak irabazi ditu, Konstituzio Kontseilurako ordezkariak aukeratzeko maiatzean izandakoak. Baina, hala ere, ez batzuek ez besteek ezin izan dute aldi bateko beren nagusitasuna ezarri eta herrialdeko testu nagusia aldarazi. Eskuinak azken *round*-a galdu du, baina ezkerrek soken kontra jarraitzen dute. ●

# Alfonso VIII. erregearen omenezko kaleari izena aldatuko diote Arrasaten

 AXIER LOPEZ

**G**ipuzkoa Nafarroako Erresumatik aterarazi eta Gaztelarentzat konkistatu zuen Alfonso VIII. erregearen omenezko kaleari izena aldatuko dio Arrasateko Udalak, herritarren eskariz. Horren partez, "17 emakume" deituko da kale hori, frankismoaren lege matxisten aurka borroka egin zuten herriko emakume batzuen omenez.

1.200 urtera arte, egungo Gipuzkoa, Araba eta Durangaldeko lurak Nafarroako Erresumaren parte izan ziren. Baina, bederatzi hilabete iraun zuen Gasteizko setioaren ostean, Gaztelako Erresumak, Alfontso VIII. buru, konkistatu egin zituen. Indarrez konkistaturiko lur horien artean Leintz bailara osoa zegoenez, Alfonso VIII. erregeak Arrasaten duen omenezko kaleari izena aldatzea

proposatu du Zuztarrak Errotuz taldeak. Arrasate konkistatu zuen pertsonaren omenez kale bati bere izena eman eta gaur arte mantentzea "onartezina eta mingarria" dela azpimarratu du. Aurretik ere kale horren izaeraren aurkako ekimenak egin izan dituzte Arrasaten.

Kalearentzako alternatiba ere proposatu dute Zuztarrak Errotuzeko kideek: "17 emakume kalea". Ezkondutakoan emakumeei lan egiteko eskubidea ukatzeko frankismoak ezarri zituen legeei aurre egin zien emakume taldeari egiten dio erreferentzia. Talde horrek, beren garapen pertsonala eta independentzia ekonomikoa lortzeko, Auzo Lagun kooperatiba sortu zuen 1969an. 1971n, hamazazpi emakume horien ekimenez, Espainiako Estatuko lan arloko lehenda-

biziko haurtzaindegia sortu zen kontziliazioa errazteko, haiek lanean zeuden bitartean bere seme-alabak zainduak izateko. Handik gutxira zerbitzu hori Arrasate osoko haurrengana zabaldu zen. Hamazazpi emakume horiek ondokoak dira: Guadalupe Agirreurreta, María Dolores Albisua, Raquel Antolín, Isabel Apraiz, Pureza Aranzabal, Amaya Arregui, Pilar Arzamendi, Pilar Barandiaran, Isabel Boix, Maite Ceciaga, Lucia García, María Luisa García, Amaia Gorroñoitia, María Purificación Iturbe, Estibaliz Landa, Eulogia Lasaga eta Mercedes Mogilnicki.

## 11 ALDE ETA BI KONTRA

Udalbatzara eraman dute proposamena eta gehiengoak babestu du aldaketa: EH Bilduk eta Arrasate Elkarrekinek alde bozkatu dute, EAJ-PNV abstenitu egin da eta PSEk aurka egin du.

Kaleari izena aldatzeaz gain, Arrasateko Udalak beste bi konpromiso hartu ditu bere gain. Batetik, Portaleko arkuaren eskuinaldean errotulu bat jarriko dute honako testuarekin: "Gaztelako konkistaren aurretik Arrasate, Atxorrotz izeneko tenentzia kokatua, egitura bateratu batean antolatuta zegoen: Nafarroako Erresuma". Testuaren gainean Nafarroako bandera zintzilikatuko dute. Eta bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatuko dio azter ditzala foru egoitzaren beirate batean aipatzen diren gertaera historikoak, Alfonso VIII. arekin loturik daudenak. ●



## Zentsura

Txillardegiri buruzko ikasleentzako bideo baten aurka jo du Covitek, zehazki Ikusgela proiektuko bideo baten aurka. Argudiatu du Txillardegiren irudia "zuritzen" duela, eta ETAK eragindako biktimak "iraintzen" dituela bideoan bera "euskararen salbatzaile" gisa aurkezteak.

## Etxebizitza

Pisu turistikoak debekatu ditzakete bizilagunek, Espainiako Auzitegi Gorenak ebatzi duenez. Donostiako eta Oviedoko bi eraikinetan izandako arazoaren harira hartu dute neurria epaileek. Beharrezkoa izango da debekua eraikineko etxebizitzentzat estatutuan jasota egotea.

## Euskara

Euskara meritu moduan baloratuko da Nafarroako eremu misto zein euskalduneari. Nafarroako Gobernuak Foru dekretu berria onartu du, eta euskara "proporzionaliki" baloratua izan dadin aukerak sortu dira aipatu eremuetan. Tirabira handiak eragin ditu dekretuak PSN eta Geroa Bairen artean.

# ZABOR ELEKTRONIKOEN ARAUTZE EZAK TXIROENEN OSASUNA KALTETZEN DU

Digitalizazioari batzuetan "desmaterializatzea" deitzen zaio, nahiz eta alde bat baino gehiagotan arras materiala izan: gailuen ekoizpenetik gure eguneroko erabilpenera eta azkenean zaborren kudeaketara, berotegi efektuko gas asko isurtzeaz gain, kutsadura asko sortzen du. Erabiltzaile gehienentzat eragin horiek eta zaborren bilakaera ezezagunak dira, baina hondakin elektronikoen artean bizi direnek haien osasunaz ordaintzen dute horien kudeaketa eskasa.

 NICOLAS GOÑI

**2**007an egin zen lehen smartphone telefonoa, laster, 2014an mundu mailako telefono mugikor mota nagusia bihurtu zena. 2019rako ekoizpenak 10.000 milioiko langa gairitu zuen eta ondorengo urtean 3.000 milioi gehiago ekoitzi ziren. Ekoizpenak gora jarraitzen du eta aurten 5.000 milioi mugikor zabor bilakatuko dira, Cellular News webgunean berriki azaldu dutenez. Hori da aurten bakarrik planeta osoko hiru biztanleko ia bi telefono botatzea, barnean daramatzaten metal baliotsu eta toxikoekin.

120 gramo dituen smartphone baten ekoizteko, 70 kilo lehengai erabili behar dira, bertatik hainbat metal urri erazuteko. 5.000 milioi telefonotan badaude, guti gora behera, 80.000 tona kobrea, 1.750 tona zilar, 170 tona urre eta 75 tona paladio, berteaz bertez -plastikoa aipatu gabe-. Horren zati handi bat birziklatu ordez galduko da. Birziklatuko diren gailuetatik etekina ez da albo-kaliterik gabe lortuko: hainbat tona merkurio, berun, kadmio eta artseniko izan dira lurra, urak eta atmosfera kutsatzeko gai, ez badira neurri egokiak hartzen. Hain zuzen, Cellular News webgunean diotenez, eskualde askotan oraindik ez dago arautegi zehatzik zabor elektronikoei dagokienez, eta horrek bidea errazten dio zabor elektronikoen mer-

katuratze ilegalari. Arautegiak, langileak babesteko tresnak, ingurunea babesteko neurriak... horrek kostuak suposatzen ditu, eta kostuak apaltzekotan enpresa batzuek arazoaren zati bat gugandik urrun merke garraiatzen dute.

Telefonoez haratago, UNITAR Nazio Batuen Formakuntza eta Ikerketarako Erakundearen arabera, 53.6 milioi tona zabor elektronikoko sortu ziren 2019an eta horietatik 5.1 milioi tona esportatu ziren, nagusiki kontrolarik gabe edo ilegalki. Arazo handiena da 44.3 milioi tonari zer gertatu zitzaizen ezin dela dokumentatu. Susmoei segi, araurik gabe jaurtiki, ilegalki salerosi edo behar ez bezala birziklatu zituzten. Zabor esportatzaile nagusiak Europa, Ipar Amerika eta Ekialdeko Asia dira, azken multzo honetan Txina esportatzaile nagusia delarik. Jasotzaileak Afrika, Hego Ekialdeko Asia, Erdialde eta Hego Amerika dira. Indiak mugaz gairidiko mugimendu guti erakusten du, baina UNITAREN ustez bertan merkatu informal handia dago.

## **ABERATSEN ZABORRA, TXIROEN ERITASUNA**

New Delhiko periferian, Seelampur hirian, goizero datozen kamioiek bertara isurtzen dituzte tonaka ordenagailu, pantaila, telefono eta aire girogailu. Zabor haietatik metalak berreskuratzen saiatzen dira bertako hainbat biztanle,

horietatik asko nerabeak edo haurrak, pobreziak ogibide toxiko horretara bultzaturik. Meta erraldoietatik zirkuituak, bateriak, kondentsadoreak atera eta horien metalak erauzten dituzte, bertan dituzten baliabideekin eta babes neurriekin, hots, errez edo azidoan beretzen jarritik, inongo babesik gabe. Erran gabe doa ingurunea oso kutsatua dela eta gazte horien osasuna kaltetua dela. Azal eritasun larriak eta birika infekzioak ohikoak dira bertakoen artean, egunero merkurioa, beruna eta artsenikoa arnastearen ondorioz. Indiak ahalegin batzuk egin ditu zabor elektronikoen birziklapen jarduerak arautzeko eta legeak bozkatuak izan ziren 2011 eta 2016an, halako zabortezi guztientzat baimena eta langileentzako babes ekipamenduak betebeharrekoak izateko. Halere, hainbat GKEren arabera, lege horiek ez dira behar bezala aplikatzen eta zabor elektronikoen merkatuak nagusiki arautu gabe jarraitzen du.

Indiak herrialde aberatsen eredu jarraitzen duela erranenez: metal toxikoen birziklapena bertan behar bezala ez egiteaz gain, lurralde txiroagoetara esportatzen du. Indiako Metssa Trading enpresak duela hogeita bat urte Kongoko kostaldeko Vindoulou hirian ibilgailuen bateriak birziklatzeko lantegi bat ireki zuen. Bertako biztanleen artean ez tul kronikoa, bronkitisa eta pneumonia ohi-



### KANTITATE IZUGARRIA

2019an, 53.6 milioi tona zabor elektronikoa onduz gabe genituen. Horien %83 araurik gabe jaurtiki, ilegalki salerosi edo gaizki birziklatu zen.

koak dira, eta honen errua identifikatua dute: beruna. Kamerunen eta Ghanan ere plantatua da Metssa Trading. The Examination ("Azterketa") kazetari taldeak eginaraziko ikerketa toxikologiko baten arabera, Vindoulou eta Doualako (Kamerun) lantegien inguruko lurretan dauden berun kontzentrazioak dira AEBetako normen arabera garbiketa behartuko lukeen maila baino milaka bider handiagoak. Biztanle eta bereziki ume askoren odolean aurkitzen diren berun kontzentrazioekin zuzenean ospitalera eramanen lituzkete AEBetan bizi balira. Berunak ez ditu birrikak bakarrik kaltetzen, minbiziak edota burmuineko lesioak ere sortzen ahal ditu. The Examination taldearen arabera, bertako agin-

tariak arriskuez jakinean daude baina ez dute informaziorik komunikatu nahi: lantegietan egindako kontrolen emaitzei edota lantegietatik hurbil etxebizitzak eraikitzeke emandako baimenei buruz deus gutxi jakinen dugu. Egoera hori ibilgailu arrunten bateriengatik sortu da eta ibilgailu elektrikoekin arazoa desagertu baino emendatu daiteke.

### NEURRITASUNA, EZINBERTZEOA

Telefono, pantaila edota ibilgailuei dagokienez, gaur egungo kontsumo ereduetan eta energia trantsizioeko politike-tan neurritasuna ez da ia inoiz aipatzen -ez bada izen horren pean inposaturiko murrizketentzako-. Gerry McGovern adituaren arabera, haien ahalez-

ko biziraupenaren %20 baizik erabili ohi dira telefonoak, baliabide xahuketa erraldoia sortuz. Garraioen energia trantsizioa ikergai duen Aurélien Bigok erakutsi digu 50 kWh kapazitatea balia daitekeela auto elektriko bakarra ala 125 bizikleta elektriko hornitzeko... Horren arabera erabakiek diferentzia handia sor dezakete baliabide beharrei -eta birziklapen beharrei- dagokienez. Beharrak murriztu, gailuak denbora luzeagoan erabili, ekonomia eta lurralde antolaketa eraldatu eta sortzen ditugun zabor guztiak geuk tratatu, ingurune eta osasun arau aski zorrotzen arabera... Printzipio horiek jarraituko ez direino, hainbat pertsona txirok jarraituko dute metal toxikoak arnasten. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



Evil Eye

# Amaia Gabantxo

HITZAK BETI MATERIA



## KULTUR BIOLENTZIA DA EUSKAL LITERATURA GAZTELANIAZKO BERTSIOTIK ITZULTZEA INGELESERA



Idazle, itzultzaile eta kantari da, euskarazko literatura ingelesera itzultzen espezializatua, eta aitzindari ere bai lantegi horretan. Hainbat sari eta merezimendu jasotakoa, Miren Agur Meabe idazlearen *Hezurren erretura* ingelesera itzuli, eta Etxepare saria jaso du oraindik orain.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

### **Zelan etorri zen *Hezurren erretura* ingelesera itzultzea?**

Etxepare Institutuak eskatuta, sasoi baten zenbait autoreren laginak itzuli genituen, ez dakit Edinburgoko Liburu Jaialdirako zen, edo Londresko Liburu Azokarako. Etxeparekoek hara eroan zituzten laginak, eta Erresuma Batuko argitaletxe batzuk bildu zirenean, Miren Agurren *Kristalezko begi bat* eta Karmele Jaioren *Amaren eskuak* lanen laginak aukeratu zituzten; lan osoa ingelesera itzultzeko, alegia. Ni, berriz, aspaldi hasita nengoen Miren Agur itzultzen, 2001ean, masterra egiten ari nintzen garaian! Orduko denboran, bere poemak itzultzen hasi nintzen: *Azalaren kodea* eta beste batzuk.

### **2001ean hasi zinen Miren Agur Meaberena ingelesera itzultzen!**

**Harrezkero, hogeitun urte ere igaro dira!** Bai! Akordatzen naiz masterra egiten hasi orduko, Bilboko liburu denda gutietara joan nintzela, liburuak erosten, Ingalaterrara eramateko. Pila bat eraman nituen. Tartean zegoen *Azalaren kodea*. Eta instantaneoan izan zen! Liburuak erosi, ireki, irakurri eta: “A!, hau nik itzuliko dut!”. Hala izan zen, oso identifikatuta sentitu nintzen. Itzuli nituen liburu horretako poema batzuk, han eta hemen argitaratu zituzten, eta Londresko Poesia Elkarteak Royal Festival Hall-en egiten dituen irakurketetan ere irakurri nituen. Uste dut hortik hasi zela Miren Agurren ibilbidea ingelesez: euskal poesiaren ira-

kurketa Royal Hall-en egin –nire mentore Peter Bushek bideratuta–, eta asko gustatu zitzaion jendeari. Handik hilabete batzuetara, Dublingo Idazle Jaialditik deitu zidaten.

### **Zeuren hasi zinen, zeuren asmoz, Miren Agur Meaberena poemak ingelesera itzultzen. Zeuren asmoz segitzen duzue euskaratik ingelesera literatura itzultzen? Laguntzarik ez da?**

Instituzioen laguntza gabe ezin da egin. Etxeparek [Institutua] lagin haiek Ingalaterrara eramateak asko lagundu zuen Miren Agurrek gero idatzitakoak itzultzen. Eta, bestalde, laguntza handia izan da Miren Agurrek [Espainiako] Sari Nazionala jasotzea ere. Ondo merezita! “Nik orain



# Amaia Gabantxo Uriagereka

BERMEO, 1973



Idazle, itzultzaile, kantari... Irlandan eta Erresuma Batuan bezainbat, AEBetan egin du bidea. Euskaratik ingelesera zuzenean itzultzen berezitu da, eta horren froga dira ingelesera eramanez dituen autoreak: Bernardo Atxaga, Miren Agur Meabe, Gabriel Aresti, Unai Elorriaga, Bizenta Mogel, Anjel Lertxundi... eta beste. Kantari den aldetik, *Kantuz – 1931* eman zuen argitara 2019an, klasi-koen bertsio harrigarriak eskainiz. Flamenkozale handia, nobela idazten ari da arte hura oinarri hartuta. Esku bete asmo da Amaia Gabantxo, 2020an Chicago utzi eta Bermeo jaioterrira itzulita.

dela hogeitau urte ikusi nuena, ikusi dute orain beste batzuek!", pentsatu nuen saria eman ziotela jakin nuenean. Miren Agurrek ahotsa dauka, eta hondo aberatsa, intelektuala, kaleidoskopikoa da: gauza asko sartzen dira bere lanean. Itzelezko idazlea dela pentsatzen dut, premio denak merezi dituela.

## Instituzioen laguntza aipatu du-zunez, euskarazko literatur lanak ingelesera itzultzeko estrategiarik bada?

Kar, kar...

### Barre gaiztoa da hori...

Ez, ez dago estrategiarik. Eta hori problema handia da. Urteak daramatzat esaten, estrategia bat behar dugula. Beti esaten dut, ez zaituztela kanpotik ikusiko, ez bazaituzte ulertzen. Kulturaz ari naiz. Eta ulertzeko, eta enpatizatzen, artea erabili behar da, ez dago komunikatzeko beste modurik; mundu anglosaxoiarekin, adibidez. Ez dago estrategiarik, estrategia diseinatu behar duenak ez duelako pentsatzen estrategia bat asmatu behar duela, eta ez bakarrik lan hori egiteko, lan horiek itzuliko dituztenen lana ondo ordaintzeko. Ezin zara zain egon, akademikoren batek edo abaderen batek borondatez zer edo zer egiten duen. Horrela ez goaz inora ere.

### Nondik sortua zaitugu zu, Amaia?

Ni? Milagro bat da ni existitzea, ze ni izan nintzen zoro bat, 18 urterekin hemendik Irlandara joan zena, han gertatzen erabaki zuena, lortu zuena beka bat han ikasketak egiteko, hamaika zirkunstantzia sinesgaitz tarteko! Literatura Ingelesa eta Irlandarra ikasi nuen, eta zorte handia eduki nuen, ze nire irakasle bat oso akademiko fama-tua izan zen, gaelikotik itzultzen zuena: Robert Welsh. Nire azkeneko ikasketa urtean, tesina idatzi behar, eta Bernard Maclaverty irlandarraren eta Bernardo Atxagaren lanak konparatu nituen, konfliktuaren errepresentazioa ardatz hartuta. Tesina hartan esaten nuen, adibidez, Atxaga gaztelaniatik itzultzen dela, eta hor badela galerarik. Oso gauza konplikatu da... eta ez konplikatu bakarrik: niretzat kultur biolentzia da euskal literatura gaztelaniazko bertsio-tik itzultzea ingelesera. Biolentzia da. Idazleak pentsatuko du gaztelaniazko bertsioa egileak berak egin, eta handik ingelesera itzulita, gauza ez dela hain

bortitza, ze, azkenean, idazleak berak itzultzen du bere lana. Baina berak itzultzen du, euskaldunok kolonizatuta gaudelako! Biolentzia eta trauma historia bat dago horren guztiaren atzean.

## Literatura itzultzen ere kolonizata.

Guk oso asunituta daukagu gu kanpoan ikusiak izan ahal izateko, lehenengo gaztelaniaz agertu behar garela. Hori barrera mental bat da, eta, badiotsut, euskal literatura gaztelaniatik itzultzea guztiz onartuta dago. Jendeak uste du obra idazleek eurek itzultzen dutenez, bi obrak, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, parean daudela. Nire ustez, bi obrak ez daude parean, ze dena delako autore horrek euskaraz idatzi du. Eta zergatik idatzi du euskaraz? Gaztelaniara itzultzea baldin bada asmoa, ez idatzi euskaraz, idatzi zuzenean gaztelaniaz! Zertan idatzi behar du inork euskaraz, gero ez badu esfortzua egin behar zuzenean euskaratik itzultzeko? Gaztelaniatik itzulita, balioa kentzen diogu originalari. Ez dut ulertzen zergatik oraindino ere itzultzen den gaztelaniatik euskal idazleen obra. Pentsatzen dut gu apur bat traumatizata gaudela, kolonizata.

Katalanak orain dela hamar urte-edo hasi ziren, Ramon Llull Institutua- ren bitartez, liburuak itzultzeko dirulaguntzak ematen, jo eta ke! Diru guztia ematen diote itzultzaileari, ondo ordaintzen dute lana, kontaktu piloa egin dute kanpoko editorialekin... *pasote!* 2019an, pandemia orduko, hiru monografiko lortu zituzten *Los Angeles Review of Books* aldizkarian, AEBetako literatura gehigarririk inportanteenean! Hiru monografiko literatura katalanari buruz, hiru! Monografiko! Urte baten! Eta hamar urte hauotan diru pila sartu dute liburuak itzultzeko, diru pila bat.

## Ez EAeko gobernuak, ez Nafarroakoak, ez Euskararen Erakunde Publikoak egin dute halakorik.

Atzerriko unibertsitateetan *Beginner's Basque* [Euskara hasiberrientzat] bakarrik ematen baduzu, jendea ez da apuntatzen, ze ez du horretan etorkizunik ikusten. Ikasleak tentatuta badaude ere – euskara oso interesgarria delako, arrazoi askogatik-, azkenean ez dute ikasgaitzat aukeratzen, jarraipenik ez daukalako. Behin eta berriz ikusi nuen nik hori Chicagoko Unibertsitatean, han euskara irakurle egon nintzenean.





Eta, orduan, zertarako daukazu munduan hainbeste jende bueltaka *Beginner's Basque* irakasten, bi-hiru lekutan dena eduki beharrean, maila guztiak, hasieratik amaieraraino! Eta etorkizuneko itzultzaileak prestatzen!

**Euskaratik ingelesera zuzenean itzultzeak zer dakarkio euskarari? Zer, euskal kulturari?**

Pilo bat! Gauza bat esango dizut: errazago da bidea zuzenean euskaratik ingelesera, gaztelaniatik ingelesera egitea baino, ze paralelismo gehiago daude euskara eta ingelesaren artean, edozein hizkuntza erromanze eta ingelesaren artean baino. Euskara, ingelesaren moduan, da oso hizkuntza sintetikoa, hitz gutxirekin esangura asko ditu. Eta, adibidez, poesia itzulikeran-eta, nik ederto baten egiten dut bidaia hori, ze erraz topatzen dut bidea.

**Eta kulturaren aldetik?**

Lehen esan dudana: ez bazaituzte ikusten, ez zaituzte ulertuko, ez dute zurekin enpatizatuko. Zergatik dago, gaur egun

AEBetan –ezkerreko giroetan, jakina–, itzelezko sinpatia katalan kausarekiko? Zergatik? Bada, horregatik! Itzulitako liburuek guztiak hor daudelako! Hori marketing lan itzela da, eta ez hori bakarrik, da erakustea nor zaren, eta zergatik eskatzen duzun independentzia, edo dena delakoa! Eta hori ageri egin behar da, ez da berez pasatzen, edo batzuk pintxoak jaten hona datozelako. Pintxoak jatera etortzeak ez

“

**Artearen bidez  
saiatu behar dugu,  
eta ez turistak  
Donostiara pintxoak  
jatera ekarrita”**

dakar enpatiarik. Bai, hona etorri eta pintxoak jaten ibiltzea polita da, dibertigarria da, gauza turistiko bat, pasajeroa, ez da benetan bihotzean gelditzen den zer edo zer: bihotzean artea gelditzen da. Adibide bat gura duzu?

**Ez dago adibidea baino lagungarriagorik...**

Ez dakit 2014an izan zen, edo 2016an. Chicagon nintzen, eta hango planetarioan hitzaldi bat ematera gonbidatu ninduten. Hilean behin film bat erakusten dute, eta gero berbaldi bat egiten dute hiru panelistarekin. Ordukoan, filma zen *Arrival*. Determinismo linguistikoa da



## ADIMEN ARTIFIZIALA

“Ingalaterrako Idazleen Elkarteak konturatu da Googlekoek eta Metakoeak 181.000 literatur liburu eman dizkiotela adimen artifizialari; besteak beste, Miren Agur Meaberen *A Glass Eye*, *Kristalezko begi bat*. Ostu egin dituzte liburu horiek denak, inori baimenik eskatu gabe! Eta autore guztien izenean salaketa ipini du Elkarteak, epailearen aurrean! Hori, adimen artifizialaz”.

## DENON KEZKA

“Behin baino gehiagotan eskatu didate *machine translation*-a egiteko, makina bidezkoa, eta nik beti esaten dut ez dudala halako beharrik egiten. Makina batek sekula ez du egin ahalko pertsona baten beharra: hurbilpen bat, bai; gure beharra erraztu apur bat, baita. Ez bada literatura, behintzat, ze literatura bada, errazago egiten duzu zuk hasieratik, makinari emanda baino! Kar, kar... Ez dakit adimen artifizialak zer ekarriko duen, hori da denon kezka, itzultzaileena, abokatuen, zientzialariena, kazetariena...”.

*Azken hitza*

## EUSKALDUNEK EZ IKUSTEN

“Iaz, eskaera bat heldu zitzaidan Londreseko PEN Klubetik. Itzulpen bat bidali zidaten, eta gura zuten nik esatea ea itzulpen hura ona bazen, eta diru-laguntzarik merezi bazuen. Euskal idazle baten lanaren itzulpena zen, baina, orduan ere, gaztelaniatik abiatuta itzultzea zuten asmoa. Hain arraroa iruditu zitzaidan eskaera, erantzun ere ez nien egin. Pentsatu nuen: ‘Zelan ausartzen dira niri halakorik eskatzen?’ Min egin zidan, ze nik oso argi ikusten dut gauza, baina haiek ez zuten problemarik ikusten niri horrelako eskaera bat egiten”.



## Egutegia 2024

Egunero efemeride bat



Prezioa 10 €

## Agenda 2024

Baratzea · Fruitu baratzea  
Lore baratzea · Basoa

Jakoba Errekondo eta  
Antton Olariaga



Prezioa 15 €

azoka.argia.eus

filmaren oinarria: erabiltzen duzun hizkuntzak perspektiba jakin bat ematen dizula esan gura du determinismo linguistikoak, hizkuntzak mundua ikusteko modu berezi bat ematen duela. Perspektiba, beraz. Hiru panelistak ginen: astronomo bat zulo beltzetan espezializatua, fisika kuantikoan aditu zen bat, eta neu, itzultzailea...

### Zertan behar zuten itzultzailea? Zein zen zure egitekoa?

Kontua da filmeko alienak Lurrera helzen direla, eta airean gelditzen direla. Ez dute ezer esaten. Bakarrik soinu batzuk egiten dituzte, eta marrazki edo irudi batzuk pintatzen. Eta itzultzaile bati eskatzen diote ea soinuak deskodifikatu ahal dituen... Beste bi panelistak beren erroilu zientifikoarekin etorri ziren, eta niri txanda heldu zitzaidanean... euskaraz kantatzen hasi nintzen. Gero, determinismo linguistikoak aipatu nuen, entzuleei esanez banekiela ez zutela berbarik ulertu, baina beharbada zer edo zer sentitu zutela: "Eta zer edo zer sentitu baduzue, horrek euskara ekarri dizue", esan nien. Hortik hasi nintzen, eta hortik segi. Hura amaitu zenean, norngana etorri zen mundu guztia?

### Kar, kar... Ez duzu esan beharrik!

Nork ulertu zuen hizkuntzaren perspektibaz ulertu behar zena? Kantuaren bidez, binkulua egin zen, eta hala egiten da harremana. Entzuleek kulturaren bitartez ulertu zuten, artearen bitartez, eta hori da egin behar duguna, artearen bitartez saiatu, eta ez turistak Donostiara ekarri pintxoak jaten. Ez Donostiara, ez Bilbora, eta Bermeora ere ez!

### Esan egin beharko dugu: zu, itzultzaile eta idazle ez ezik, flamenko kantari zaitugu, eta, oraingoan, berri, flamenko estiloko nobela duzu eginkizun...

Kar, kar... Sasoi luze batean, Ingalaterra bizi nintzenez, flamenkoa besterik ez nuen kantatu. Gero, Chicagon, flamenko kantatze hura gauza hibridoagoa bihurtu zen, experimentalagoa. Hala ere, aitortu behar dut flamenkoa asko maite dudala, eta pilo bat erakutsi didala. Flamenkoa ez da musika bakarrik, ezpada bizitzeko filosofia bat, eta da terapia, ze kolpe bakoitzak gauza bat irakasten dizu, eta kolpe bakoitza menderatzen duzuneko, emozio bat menderatzen duzu. Eta hori pasada bat da. Oso mundu aberatsa da flamenkoa, baita kantatzen diren letrak

ere. Mundu anglosaxoiari flamenko dantzak-eta gustatzen zaizkio, baina ez du flamenkoa bera ulertzen, eta orduan, liburua egitea erabaki nuen.

### Eta horretan ari zara...

Horretan nabil, baina grabaketak egin behar ditut, ze nahi dut liburuko kapitulu bakoitza kanta batekin hasi: lehenengo, kantua ipiniko dut; gero, kantuaren itzulpena; eta, ondoren, kantu hori elikatzen duen nire memoria, fikzionatuta, edo ez. Hori da liburua. Gatom kantariak estudio bat du Bermeon, eta berarekin grabatuko ditut kantuak. Gatomek Chicago proiektuan ere parte hartu zuen, eta oso ondo konpontzen gara.

### Nola lotzen dira itzultzailetza, idazletza, eta kantarritza?

Urte askoan, gauza bakoitza bere aldetik egin izan nuen, konpartimenduak balira bezala, baina Chicagoko urteetan dena bat zela konturatu nintzen: nire hitzaldi batean, lehenengo biderrez, kantatzea erabaki nuen; flamenkoa, gainera. Urtero, ikasturte akademikoaren hasieran, Humanitateen Eguna egiten dute Chicagoko Unibertsitatean, eta bertora gonbidatzen dituzte dohaintzagile guztiak, diru emateko. Eta euskarari buruz hitz egiteko eskatu zidaten. Betikoa: ni, exotikoa. "Popatik hartzera!", pentsatu nuen, eta flamenkoa kantatzea erabaki nuen.

### Euskarari buruz hitz egiteko eskatu, eta flamenkoa kantatu zenuen?

Baina bazen gauza bat nire hitzaldia, *Euskara eta Flamenkoa*, batzen zuena: George Borrow. XVIII. mendeko idazle ingeles bat izan zen George Borrow, liburu santuen lehenengo zatia euskaratzea bideratu zuena. Urte berean, zati bera, kaloerara, erromanira, itzultzea ere gauzatu zuen. Borrowk euskaldunak eta ijitoak maite zituen, biak, eta da flamenkoaren eta euskararen arteko topalekua. Horri buruz egin nuen hitzaldia, eta mundu akademikoarekin haserre, kantatua egin nuen hitzaldi erdia. Eta arrakasta! Harrituta geratu nintzen! Gero, morroi bat etorri zitzaidan atzetik, zuzendariren bat-edo, eta esan zidan: "Milioi bat [dolar] gehiago lortu diguzu!". Ni neu naizen bezala, osorik agertu, eta erreazio guztiz positiboa jaso nuen. Orain askotan esaten dut nik artea egiten dudala, hitzen bitartez: literatura itzultzea, idaztea, eta musika. Hitzak dira beti nire materiala, eta formak dira itzulpenak, ipuinak eta kantuak. ●



## Hemendik begira

**H**emendik begira, Euskal Herritik, ezer ez da gertatu besteek kontatzen diguten eran. Tematzen diren arren, gu ez gara frantsesak ez espainiarrak. Euskaldunak gara konstituzio arrotz guztien gainetik eta oldarraldi guztien azpitik. Ez dugu, beraz, gure ikuspuntua aldatu eta besteena geure egin behar. Euskal Herritik bertatik aztertu behar ditugu gure eta besteen historia eta iragana, geure orainaldia neurtu eta etorkizuna prestatu.

Espainia hori, liberala edo frankista, ezkerrekoa edo eskuinekoa, Euskal Herriaren aurka diseinatu eta eraiki da, sustraitik, azken mendeetan. Monarkia espainiarreko elite liberalek XVIII. mendetik aurrera plangintza estrategiko bete diseinatu zuten, Espainia nazio-estatu bakarra inposatzera eta Euskal Herria zein penintsulako beste nazioak ezabatzerara bideratua. 1776. urtetik hona, hizkuntzaren uniformizazioa, gaztelera *espainiera* bihurtuta, helburu deklaratu izan da. Gaztelera, legez eta hezkuntzaren bidez, inposatua eta unibertsalizatua izan da lurralde guztietan.

Hizkuntza bakarra eta merkatu bakarra dira garai hartatik strategiaren ardatzak. 1778tik merkataritza libreko erregelamenduak modu zorrotzean eragin zuen euskal lurraldeetako sistema ekonomikoan eta foruen sistema propioan. Eragin hori sakondu eta Espainia nazio bakarraren proiektua errealitate bihurtzeko, lehen nazio-konstituzioa behar zuten, eta horretarako aldarrikatu zuten 1812ko *Pepa* hura, arau progresis-

Espainia nazio  
bakarraren proiektu  
inposatu horrek zortzi  
konstituzio eta hiru  
gerra gastatu ditu  
euskaldunon aurka  
azken bi mendeotan

ta eta aurrerakoia omen zena. Arau berria erakargarri aurkeztu nahian altxatu zituzten frantses okupatzaileen aurkako independentziaren bandera, batetik, eta erregimen zaharreko sektore erreakzionarioen aurkakoa, bestetik.

Behar zituzten seduzitu, erosi, berenganatu edo bestela neutralizatu estatu-nazio espainiar bakarra eratzekeo traba ziren guztiak, eta horretarako piztu zuten bataila ideologikoa euskal foruen aurka, euskaldunon orduko konstituzio propioa arau zaharkitu eta erreakzionarioa zelakoan, Gaztelako erregeek garai zaharretan emandako pribilegioa (Juan Antonio Llorente *dixit*). Eta eztabaida ideologikoa baino haratago, oso balio-tsua zuten indar militarren argudioa. Hori baliatu zuten 1812. eta 1813. urteetan, Hego Euskal Herriko instituzioak “konbentzitzera” Castaños Aragorri kapitain jenerala bidali zutenean. Heroi espainiar hura, Baileneko bataila ezagutuz, Napoleon beraren armada garaitu



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

zuen, jatorri euskaldunekoa zen, hain zuzen ere, aita Bizkaiko Portugaletekoa eta ama, berriz, Lapurdiko Ainhoan jaioa. Euskal zutabea lehertzeko, zur bereko ezpala. Zenbat aldiz gertatu zaigun hori bera!

XIX. mende hasierarako, beraz, presente da Espainia estatu-nazio bakarra proiektuaren eta Hego Euskal Herriko lurraldeen arteko gatazka, bere dimentsio ekonomiko, instituzional, politiko, akademiko eta linguistikoan. Espainia, estatu uniformizatu eta zentralizatua versus Euskal Herria nazio berezitua, forala, euskalduna.

Gatazka horren dimentsio armatua baino ez zen falta, eta berau ere leher-tu zen Karlistaldiak deitu izan diren bi gerra gordinetan, 1833-1840 urteetan lehena, eta 1872-1876 urteetan bigarrena. Euskaldunontzat, behintzat, horiek ez ziren ez gatazka dinastikoak ez erlijio gerrak izan. Nazio proiektu kontrajarrien arteko gerrak izan ziren, bete-betean, estatu-nazio espainiar inposatua, batetik, eta euskal nazio forala, bestetik.

Espainia nazio bakarraren proiektu inposatu horrek zortzi konstituzio eta hiru gerra gastatu ditu euskaldunon aurka azken bi mendeotan, eta azken gerraren ondoko konstituzioak, 1978ko hark, hasierako 1812ko parametro bertsuetera jo du: demokrazia eta progresua argudio, euskaldunon naziotasun propioa ukatu eta bertoko herritarrak seduzitu edo neutralizatu nahi ditu. Ahaztu egin zaie, nonbait, historia, errepikatu nahi denean, fartsa bihurtzen dela. ●

# Palestina eta desafekzio politikoa



SONIA GONZÁLEZ  
IDAZLEA ETA ABAR

**A**spalditik ez genuen ikusia halako erantzuna, New Yorkeko karriketarik Kuala Lumpurreraino, euskal hiri eta herrietatik pasatuta. Ez pentsa, oraingoan ere ezin izan dugu apenas ikusi bere osotasunean, ezkutatzea zaila izan den arren. Eta ezkutatze-ko ahaleginak egin dira, bai. Hau ez da ezer berria, jakina. Boterea daukanak erabakitzen du beti zer kontatzen den, nola kontatzen den eta noren biziak ardua duten. Zerbait nabarmentzekotan, diskurtsoarekin bat ez datorren gero eta ahots politiko gutxiago eta alderdian egituraturako kontrabotere gutxiago daudela, edozein herrialdetara begiratzen dela ere.

Eta, hala ere, kaleak hartu ditugu.

Izurritean neurria ondo hartu zigten. Hala komentatu ohi dugu lagun artean lantzean behin. Hainbat eta hainbat kontutarako erabili zuten parada hura. Lerrokatze eta pentsamendu bakarrari dagokionez, lehenagotik Ukrainarekin

ikusi ahal izan ditugu molde berriak, esaterako. Baina Ukraina errazagoa da. Oro har, nork zekien ezer Ukrainari buruz? Putin bezalako gaizto bat taula erdian egonda, gainera... Palestina, ordea, oso bestelakoa da. Urterik urte lapurtutako lurren berri ematen duen mapa soil batez uler dezake edonork, baita gatazka lazgarri eta guztiz desorekatu hau ezagutzen ez duenak ere.

13 edo 14 urte inguru neuzkan grabaturiko TDK kasetean Soziedad Alkoholika *Nos vimos en Berlín* kantatzen entzun nuen lehenbizikoan. Bai zara zaharra, neska! Hala ere, zu bezain zaharrak edo are zaharragoak dira urte hauetan guztietan, baita lehenagotik ere, Israelen jokabidea bizi izan duten guztiak. Eta, hala ere eta suerte onez, han-hemenka elkarrizketa eta konponbide politikorako deiak entzun behar izan ditugu, horrek zerbaiterako balio-ko balu bezala. Estatu bi eratzekeko soluziobidea txosten zaharretatik birziklatu

du batek baino gehiagok, presidenteren bat barne.

Bide hori jorratuta dago honezkeroko. Kantsatu arte. XXI. mendean ondo sartuta gaudela, agerikoa da Israelek ez duela Palestinako Estaturik onartuko. Paper gainean, legeetan, nazioarteko erresoluzio eta ebazpenetan behin eta berriro islatu da eta behin eta berriro urratua izan da. Balizko akordio guztiak saltatu ditu Israelek. Eta hortxe dago gakoa. Inork ez duela inoiz ezer egin, berrikeriaz gain, Israel behartzeko. Inork ez duela ezelango neurririk hartu, ezta harremanak apurtu ere.

Badira interes politiko, ekonomiko eta geoestrategiko zehatz horiekin lerrokatzen direnak. Ez dira gutxi. Baina beste batzuen epelkeria ulertzea gaitzagoa da. Gehiago pentsatzen da balizko higadura politikokoan egiak esatean baino; gehiago pentsatzen da beste inor etorriko ote den kontuak eskatzen, zuzen eta artez jokatzeko baino; gehiago pentsatzen da defentsiban, defendatu behar diren herritarrak eta printzipioak defendatzean baino.

Eta, hala ere, erantzun sozialak lurbera osotik hartu ditu kaleak, egitura eta instituzio politikoetan diskurtso indartsua falta zelako harrituta.

Nazio Batuen Erakunde mundu osoaren begietara lotsagarri geratu da. Barregarri, kargu hartzen dion Israelen lotsagabekeriaren aurrean. Giza esku-bideak antzerki hutsa zirela bagenekien, baina ez dut uste horren agerian inoiz geratu denik. Sistema sozio-politiko eta ekonomikoari eusteko sortu ziren erakunde guztiak eraisten ari dira, demokrazia errepresentatiboa eraisten ari den bezala. Eta esan gabe doa zergatik den gero eta zabalagoa instituzio eta alderdi politikokoekiko desafekzioa. ●



DOM CAMPISTRON

## Ezkerraldean, kultura aldaketa



**KIMETZ ARANA  
BUTROE**  
BARATZEZAINA

**A**zken udal hauteskundeetan EH Bildu bigarren izan da Sestao eta Santurtzi bezalako hirietan. Indarrak izugarri berdindu dira, hamarkadatan agintean egondako alderdien nagusitasuna apurtu da, eta horrela, ezker subiranista betiereko oposiziotik Ezkerraldeko hirietan irabazteko atarira igaro da, eta aukera berriak zabaldu dizkio eskualdeari.

Krisi ekosozialak ere bidegurutzetan ezarri du mundua eta eraldaketarako bideak biderkatu ditu eredu berriak proposatzen dituzten indar ezkertiarrentzat.

Izan dira lehenago ere aldaketa handiak gertatu diren garaiak, huts egin dute, ordea: politika sozialetan, komunitarioetan, etxebizitzan, kultur sorkuntzan, ingurumenaren zaintzan, herriarekiko inplikazioan eta abarretan Euskal Herriko azken bagoian kokatzen baita Ezkerraldea. Eskualdean sustraituta dagoen pentsamendu eta funtzionatzeko sistema da edozein aldaketaren potentzialitatea garatzeko balazta. Hemen administrazioa ez dago herritarren zerbitzura. Herritarren arazoekiko ulerkortasunik ez da. Ohiko prozedurak izugarri luzatzen dira. Herritarren proiektu ekonomikoak ez dira babesten. Elkarleen ideia berrietarako denak dira oztopoak.

Politika ordezkariak alderdien peoiak dira, haien arteko elkarrizketa kulturarik gabekoak, eta orain arte ez da sakone-

ko herri planteamendurik ez entitatezko proiekturik garatzeko gaitasunik izan. 13.000 biztanleko Trapagaranen frontoirik, zahar etxerik eta kultur etxerik gabe bizi gara. Teknikariek dagoena ahal bezala kudeatzen dute. Ez dago egoera berriei egokitu edo zerbitzuak zabaltzeko erronkarik. Ez dago sail desberdinen arteko elkarlan kulturarik.

Ezkerraldeko enpresa handien ereduak historikoki produkzioa hemen mantendu baina aberastasuna beste tokietara eraman du. Langile soilen kultura da gurea. Ez dago ekonomia eskualdean sustraitu eta aberastasuna lurraldearen garapenean berrinbertitzeko praktikarik. Ez dago ideia berriak jaso, zabaldu eta pentsamendua garatuko dituen komunikabide alternatiborik.

Aurrera egiteko, beraz, beharrezkoa da dinamika horiek gainditu eta kultura herritar berria sortzea. Krisi ekosozialaren ondorioz planteatuko diren aldaketak komunitatearen trinkotzean eta inguruko baliabideen birjabetzean oinarritzeak lagun gaitzake horretan. Adostasun zubiak eraiki, eraldaketan trebatu behaunaldi gazte prestatuei bere herrian jarduteko espazioa eskaini, gauzatu eta babesa lor dezaketenez proposamenak egin. Bidea zehaztu, ez dezagun aukera hau gal, denbora asko baitaramagu azken bagoian, pasa gaitezen hurrengora. ●

## Eraikuntza nazionala



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**H**ezkuntza Lege berria, adostasunik jaio behar zena, haserrean eta desakordioan onartu da. Publiko-privatu auziak eta hizkuntza ereduak eragin dute akordio falta. Pena handia.

Horretan Espainiako ereduari jarraitzen diogu, EAEn ez garelako gai oinarri amankomun batzuk jarri eta aurrera egiteko. Hezkuntza gure etorkizuna da, eta euskarri zabal eta sendoak ezinbestekoak direlakoan nago.

Porrota, azpijokoa eta traizioa gailendu zaizkio gizartearen interes orokorriari. Baita interes elektoralak ere. Betiko miseria higuigarriak.

Zurrumbilo horren erdian, eta 2023

ia osoan, Anduezak esan du behin eta berriro lege berria ez zela izango “eraikuntza nazionala” gauzatzeko. Etengabe, urtariletik abendura.

Eraikuntza nazionala egiteko bidea izango da, baina. Izan ere, Anduezak dihardu eraikuntza nazionala egiten; Espainiaren eraikuntza nazionala, hain zuzen. Euren proiektu nazionala eraikitzen dabilta, oso proiektu zaharkitua, bestalde.

Etorkizuneko herritarrak elebidun konpetenteak hobetsi beharrean, estatuaren ikuspuntu itxi horrekin aberastasuna lapurtzen.

Argi dut: euskarak min ematen die. ●

# Palestinan guztion etorkizuna dago jokoan



ANDREA BARTOLO  
AZET ETXEBIZITZA  
SINDIKATUKO KIDEA

Israelek Palestinaren aurka abiatutako genozidioa eta garbiketa etnikoa ikusten ari gara, zuzenean eta telebista bidez. Milaka pertsonaren erailketa, ospitale eta eskolen bonbardaketa eta derrigorrezko hamaika desplazamenduren lekuko izaten ari gara, “Nazioarteko Komunitatearen” justifikazio eta konplizitatearekin, “terrorismoaren aurka Israelek duen defentsarako eskubidearen” izenean.

Duela urte batzuk herri palestinarra terrorista lez izendatzea pentsaezina izango zen gurean. Duela urte batzuk inork ez zuen zalantzan jarriko herri palestinarrak kolonialismo sionistaren aurka duen *matxinadarako eskubidea*, zuzenbide-burgesak ere onartzen duen eskubidea, alegia. Izan ere, eskubide hura 1948ko NBEren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsean aitortuta dago, eta NBEk berak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du.

Nola gauzatu da, beraz, paradigma-aldaketa? Erantzuna topatzeko 2000ko hamarkadara jo beharko genuke, “terrorismo globalaren aurkako” ofentsiba inperialistak utzitako putzu ideologiko eta kulturalera. Terrorismoaren aurkako paradigma hura inposatuta, inperialis-

Palestinarrak erresistentziarekin bat egiteak esan nahi du munduko herri langile guztien borrokarako eta emantzipaziorako aukera babestea

moak matxinadarako eta erresistentziarako eskubidea, *de facto*, indargabetu zuten. Erresistentziarako eskubidea XX. mendeko klaseen arteko indar-harremanei esker lortu zen –eskubide konkretu eta sozialista gisa, eskubide abstraktu burgesei kontrajartzen zaiona–. Gure klaseak, faxismoaren aurkako borrokaren eta borroka anti-kolonialen bitartez, burgesiari inposatu zion eskubidea da; 1960ko hamarkadatik aurrera askapen nazional eta sozialeko borroken oinarria eta borroka internazionalista globalaren printzipioa izan da.

Gaur egun, ordea, eskubide horren desintegrazioaren lekuko izaten ari

gara. Marxek esaten zuen moduan “eskubideen arteko talkan, indarrak erabakitzen du”; eta gaur egun inperialismoak bere eskubidea berriz inposatu digu: kolonizatze eta desjabetze eskubidea. Eta horren aurka matxinatzen dena “terrorista” egiten du.

Palestinan paradigma horren aldatzeko dakartzen ondorioak gordinenak ikusi ditugu: Israelgo Estatu supremazista eta kolonialari “defentsarako eskubidea” aitortzen zaio, eta kolonialismoaren eta apartheidaren aurka borrokatzen duen herri palestinarra “terrorista” izendatzen dute. Eta horrek guztiak Palestinako mugak gaintzen ditu eta munduko herri langile guztientzako abisu bihurtzen da: inperialismoak erresistentziarako eskubidea baztertu du, Mendebalde kolektiboaren “arauetan oinarritutako munduaren” azpian lurperatuta.

Horregatik guztiatik, Palestinari elkartasuna ematea, inolako ñabardurarik gabe, munduko langileriaren betebeharrak ukatzina da, Palestinarrak erresistentziarekin bat egiteak esan nahi duelako munduko herri langile guztien borrokarako eta emantzipaziorako aukera babestea. ●

Zozoak beldari  
PODCAST SAIOA


IKUSI NAHERAN SPOTIFYN

hamaika



# AMILLUBI

LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m<sup>2</sup> lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurra izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

**Denon laguntza behar dugu:** Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

[www.amillubi.eus](http://www.amillubi.eus)

**Biolur**  
Gipuzkoa  
Nekazaritza Ekologikoaren Altxako Ekartera

+ 27 eragileren babesarekin

**LURRA**  
**HERRIARI**  
**DEIKA**

## EUSKARA IPAR EUSKAL HERRIAN

# Azken sokatirak, hizkuntza politika eraginkor baten alde

2024 urte hastapenean adostuko du ondoko urteetarako hizkuntza politika Euskararen Erakunde Publikoak (EEP). Azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak eta EEPk 2050ari begira egindako aurreikuspenak esku artean, alarma gorria pizturik du euskalgintza sozialak: ezin da orain arteko lanketa eta baliabideekin segitu, anitzez gehiago behar du euskarak. Manua bideratu die Euskal Konfederazioak instituzioei: 2050erako euskaldunak %30 izatera eramango gaituen hizkuntza politika bat behar du Ipar Euskal Herriak. Gaur egun Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan euskaldunak %20,1 dira, diglosia bortitzean direnak, ofizialtasunaren babesik gabe, baina euskaraz bizitzeko borondate handiz dabilzanak.

### JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**E**uskalgintzak badaki orain dela, hein handi batean jokatzeko, ondoko urteetarako Ipar Euskal Herriko hizkuntza politika. Urriaren 19ko Euskal Konfederazioaren interpelazio publiko jendetsua –2050erako euskal hiztunak %30 izatea bermatuko duen politika ausarta galdatzeko antolaturiko prentsaurrekoa–, bilkura ofizialak zein estraofizialak, urte bukaera kargatua dute euskararen alde diharduten eragile sozial zein instituzionalak. Hain zuzen, sei urtero ebaluatzen du egindakoa Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta heldu zaio unea. 2024 hastapenean bozkatuko du EEPk aurrekontua, eta ikustekoa da hizkuntza politikaren berrikusketari lotzen diren ala ez –2006an adostu zutena ez dutelako orduz geroztik sakonki arraberritu–.

EEPk irailean aurkeztu zien lantokurik gabe hitz egin zuen euskalgintzako eragileak biltzen dituen Euskal Konfederazioak: “EEPk ez du euskararen geroa segurtatuko duen hizkuntza politikarik

proposatzen. Haien proposamen bakarra da, orain arte bezala segitzea”. Azken inkesta soziolinguistikoak azaleratu datuak kezkarriak dira: %20,1 dira euskaldunak (%24,7 ziren 2001ean) eta bistan da, batez besteko bat da, Ipar Euskal Herriko hiru biztanleentatik bat dituen Baiona-Miarritze-Angelu hiri-eremuan %8,4 delako euskaldunen kopurua. Egoera linguistiko desorekatu eta diglosiko horretan euskararen erabilpen maila are kezkarriagoa da: bakarrik %7,1 euskaraz ari da frantsesez bezainbat edo gehiago (%10 ziren 2001ean), eta Baiona-Angelu-Miarritzen %1,9 dira.

Nola egin egoera kritiko horretatik ateratzeko? UNESCO Nazio Batuen Erakundeak dio bizirauteko hizkuntza batek behar duen gutieneko hiztun proportzioa %30ekoa dela. Nola iritsi horretara? Nola arribatu euskararen ofizialtasunik gabe eta Frantziaren Konstituzioaren 2. artikulua traba gisa etengabe emana zaigun testuinguru konplikatuan? Galdera horiek esku artean hitz egin dugu euskalgintzako

hainbat eragilerekin: haurtzaindegi euskaldunen sarea garatu nahian dabilen Konkolotx elkarteko Elorri Arin; haurrentzako aisialdia euskara hutsean proposatzen dabilen Udaleku-ko Maddi Bordagarai; helduak euskalduntzen dabilen AEK-ko Ihintz Oviden; euskararen erabilpenaren alde dabilzan Plazara kooperatibako Eneko Gorri, Irati Fernandez eta Kamila Harluxet, baita EEPko presidentetza utzi berri duen eta Euskal Hirigune Elkargoan euskararen arduradun presidenteorde Antton Kurutzarri ere –EEPko presidente Mainer Behotegik ez die erantzun ARGIAren elkarrizketa eskaerei–.

“EEPko lehendakari berriari eskatu nahi diogu ausarta izan dadin, helburu ausartak finka ditzan eta araberako baliabideak ezar ditzatela Estatuak, Eskualdeak, Departamenduak eta Euskal Hirigune Elkargoak. (...) Ez da oraino berantegi euskara berpizteko, baldin eta zinezko borondate politikoa agertzen bada. Aldiz, gaur egungo erritmoan eta gaur egungo baliabideekin segitzea eus-





GUILAUME FAVENAU

kara epe ertainean hiltzera kondentzea litzateke". Abisu hori luzatuz bukatu zuen bere adierazpena Euskal Konfederazioak urriaren 19ko alarma piztean.

Instituzioei dagokionez, EEPz gain, 2017an osatu zen Euskal Hirigune Elkargoak ere badu Ipar Euskal Herri mailako hizkuntza politikan ardura handia. 2018ko ekainaren 23an *Euskara jalgi hadi plazara* hizkuntza politika bozkatu zuen, bide beretik "ofizialki" ezagutuz euskara eta gaskoia ere lurralde honetako hizkuntza gisa –sinbolikoki bere pisua ukan bazuen ere adierazpenak, ez zen, ordea, "ofizialtasuna" aldarrikatzeko eta beraz desobeditzeko urratsa izan–.

### HELBURUAK GORA JARRI, AUSARDIAZ JOKARAZTEKO

"Zein anbizio dugu euskararentzat? Zein bisio dugu? Guri dagokigu, militanteei, helburuen finkatzea, politikariei uzten badiegu ez dugulako lortuko. Eta ez badugu guk sinesten, ez dugulako inoiz lortuko", dio Plazarako Gorriak, 2050erako

---

"Estatua, Eskualdea, Departamendua eta Elkargoa dira EEPn. Kide batzuek euskararen alde sobera engaiatzen garenaren susmoa dute"

**Antton Kurutzarri**

jarritako %30 euskaldunen helmugaz aritzerakoan.


Orain arteko hizkuntza politika ez delako aski ausarta eta eraginkorra. Egiaztapen hori aho batekoa da euskalgintza sozialean. AEK-ko Olidenek dio oinarritik duela planteamendua txarra EEPk: "Baliabideen arabera politikoa erama-

ten dute, baina alderantziz, hizkuntza politika landu behar dute ondotik horren arabera baliabideak bideratzeko".


5.257.046 euroko aurrekontua zuen 2023 urterako –eta horietako 1.930.000 euro euskalgintzako eragileentzat–. 2003an sortzerakoan zuen 2 milioi euroko aurrekontuaz geroztik apurka-apurka emendatuz joan da, azken emendia 2017an izanik Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerarekin batera. Aurrekontu eskasegia, hizkuntza politika eraginkor bat eramateko eta euskararen alde dabilzan eragileek duinki lan egin ahal izateko. Bere egoera prekarioa salatu zuen iazko abenduan AEK-k eta Udalekuren aldia izan zen martxoan. Aldian aldi, ezohiko txeki bat errezibiturik, egoera finantzarioa hobetu eta langileen soldaten emendia bideratu ahal izan dute –horrela hitzarmen kolektiboek behartzen duten soldata minimoa bermatzeko–. Baina aldi aldiko petatxua ez da ere aterabidea, epe ertain-luzerako bermerik ez dutelako.

## Ipar Euskal Herrirako 7. inkesta soziolinguistikoa Martxoan 2023

### Hizkuntza gaitasun orokorra



### Hizkuntza gaitasuna lurralde soziolinguistikoaren arabera, 2021 urtea (%)



Gainera, euskalgintzak beharko lukeen garapena ezinezko egiten du surgeltasun ekonomiko ezak: “Ez dugu lortzen eskaerei erantzuten, blokeatuak gara, haurrak errefusatzeko gabiltza”, dio Udalekuko Bordagaraiak. Berez herriko etxeek diruztatu behar lituzkete aisialdi guneak, baina ez ditu ezerk horretara behartzen. Egoeraren larritasuna irudikatzen, jakin behar da haur/egunka kalkulatu dela gastuena eta minimoki Udalekuk 25 euro beharko lituzkeela haur/egunka –EEPk gomendatzen dio 32 euro galdetzea herriko etxeei–; baina gaur egun bakar batzuk dute hori segurtatzen (Ziburu, Uztaritze...), besteena apalagoa da, hutsaren hurrengoa delarik batzuentzat (Hendaiak, demagun, bi euro banatzen ditu haur/egunka). Hori horrela, ekonomikoki gaizki dira eta nahiz eta galdea izan, ezin diote interesatu orori bermatu euskara hutsezko aisialdia. Adibide bat ematearren, 260 bat leku dituzte udako egonaldientzat eta parean, berriz, 500 eskaera.

Egoera berean da Konkolutx egitura ere, haurtzaindegia edo haurtzain etxea euskara hutsean nahi luketen guztiei erantzun ezinean. Adibidez, Miarritzeko Ohakoa haurtzaindegian 25 familiaren eskaerari ezetza eman behar izan diote

“Euskararentzako arnagune bat gara, baina ganibet bat dugu zintzur azpian”

**Maddi Bordagarai**


aurten. “Lanean hasi naiz, nire lanpostua diruztatua izanen den jakin gabe” dio Konkolutxeko koordinatzaileak. Eta berdin dabilta Plazarako lau langileak. Batzuk eta besteak diru bilketa bat abiatu dute, herritarren babesari esker aitzina egin ahal izateko.

Euskalgintzako eragileek badakite ez dela bakarrik sos kontua eta nahikeria politikoa dela oinarrian. “Azkenean, arazoa politikoa da: zer nolako herria nahi dugu? Zein dira lehentasunak? Hitzetan gara, hitz politetan hori bai, baina hitzak ez dira nahikoak eta gaur egun emana dena ez da onargarria”, Bordagarairen arabera. “Hizkuntza politika beti lehian dago beste politikekin, beti dituzte juse-

tifikazio batzuk urrunago ez joateko. Ez da anbizio aski. (...) Ideien bataila irabazi dugu eta orain alde izatetik alde egitera pasa behar gara. Oraingo negoziaketa fasean frogatu dezakete badutela alde egiteko gogoia”, dio Gorrik, borondate politikoaren inportantzia azpimarratuz. EEPko kide den Kurutzarriekin ere hitz egin dugu. Ezkerreko abertzalea da, euskaltzalea eta hautetsi izan aitzin jadanik bazebilen euskalgintzan eta kulturgingintzan –besteak beste, Nafarroaren Egunaren antolatzaile den Basaizea elkarrean–. EEPko presidente izan da azken hiru urteetan eta aldi horren balorapena galdetzerakoan ondokoa ihardukitzen dio kazetariari: “Lan biziki nekea da –ez naiz nire pertsonaz ari, EEPz ari naiz–: Ipar Euskal Herria ttipi-ttipia da, denek elkar ezagutzen dugu eta gauza kontrajarriak itxoiten ditu jendeak. Instituzioaren baitan, berriz, politika publikoa eramateko kontu oro justifikatu eta neurtu behar dugu, begirada zorrotza dute instituzioek, berez gauza ona ere badena. Lau kideen artean adosturiko politika da –Euskal Hirigune Elkargoa, Estatua, Eskualdea eta Departamendua– eta EEP euskararen alde sobera engaiatzen denaren susmoa dute horietariko batzuek. Baina aldi berean, euskalgintzatik izu-

## Euskaldunen ehunekoaren bilakaera adin-tarteka

2001, 2011, 2016 eta 2021 urteak (%)



garriko presioa dugu, nahiko egiten ez dugula entzuten dugu, eta hori ere normala da gisa batez. Orduan horrela, bi aldean artean gara, biziki gogorra da, bi aldeetatik ditugu kritikak, beti kritikatuak gara". Ondoko abisua luzatu du: "EEP tresna interesgarria da, baina ez da hautsi behar, sobera azkar joz ez litzateke hautsi behar..." Bat egiten du instituzioei gehiago eskatu behar izanaren posturarekin, orain artekoan jarraituz euskarak "sekula baino leku ahulagoa eta apalagoa izanen lukeelako ondoko hamarkadetan".

### EUSKARAREN ALDEKO EGITURA, BAINA FRANTZIARENA...

EEPren osaketak ez du errazten hizkuntza politika eraginkor eta ausart baten lorpena. Azkenean, Frantziako Hezkuntza, Barne eta Kultura ministerioekin adostu beharrekoa delako, baita euskara lehentasunetan ez duten Eskualdearekin eta Departamenduarekin batera ere. Azkenean, nahikeria politikoa osaketa politikoaren araberakoa da, eta hor daukagu segur aski hizkuntza politika eskasaren arrazoa, Frantziaren eta frantsesen ikuspegitik zentzuzkoa eta nahikoa dena, noski. Barnetik ikusita ez da erraza elkarlan hori eta lau kideek


onargarriztat joko duten politika eta aurrekontua finkatzearena. Funtsean, 2017an Aholku Batzordetik atera ziren Euskal Konfederazioko eragileak, kide horien "borondate eta anbizio eskasari" erantzuteko. Orduz geroztik ez dira berri sartu, nahiz eta paraleloki harremanak izaten segitu.

Abenduaren 16 honetan burutu ditu jardunaldiak Euskal Konfederazioak 2050erako jarritako helburua lortzeko bidean beharko litzatekeen hizkuntza politikaz taldean hausnartzeko. Eguna-ren bukaeran manifestua irakurri zuten, instituzioak interpelatzeko xedez.

### %30 EUSKALDUNA, POSIBLE LITZATEKE, BALDIN ETA...

2050erako Ipar Euskal Herriko euskaldunen kopurua %17 beharrean %30 izateko zer aldatu, garatu eta sortu beharko litzatekeen galdetu diegu elkarrizketatuei. EEPk euskalgintzakoei bidalitako dokumentuan agertzen da hizkuntzaren erabilpenaren sustapena izan beharko dela ondoko hamarkadetakoa helburu nagusienetarikoa: "Gaurko egunean, euskararen erabilera oinarritzen da neurri handi batean hiztunen motibazio indibidualean eta ez euskararen erabilpenarentzako lekuen eta au-

## Euskararen erabilera



keren normalizazioan, garapenean eta dibertsifikazioan. Erabilaren igoera da beraz, hurrengo hamarkadarako hizkuntza politikaren erronka handia. Institutuzio guztien borondatea eta gaitasuna dira giltzak, dagozkien esku-men guztiak baliatuz (haurtzarora, gazteria, kultura, kirola, garapen ekonomikoa, komunikabideak, kultur ekoizpena eta abar.) hizkuntza politika garatzeko gisan, beren ekintzak euren artean eta EEPekin koordinatuz".

Euskalgintzako eragile guztiek bat egiten dute behar horrekin. Horregatik da Udaleku bezalako eskaintza ezinbestekoa, edota eremu sozioprofesionaltan euskararen presentzia garatzearen alde dabilen Plazararen lana ere beharrezkoa. Euskaraz bizi nahi duenak erabiltzeko okasioak behar dituelako.

Ipar Euskal Herriko paisaia linguistikoa hain da frantsestua non eta aisialdia euskaraz jasotzeko bertaraturiko haurrek ez duten euskara erabiltzeko ohitura edo maila -bistan da, salbuespenak salbuespen, Miarritzeko egoera ez delako Itsasukoa, demagun-. Arazo hori eskolaren eremuan ere badago, sail elebidunean frantsesa dute nagusi eskolako patioan eta ikastolak ere ez dira errealitate horretatik aparte bizi.

## “Anitz egin da eta anitz bada egiteko”

Euskararen Erakunde Publikoak 2024an hogeitau urte beteko dituela, egindakoari eta egin beharrekoari begira jarri da Euskal Konfederazioa, abenduaren 16an irakurritako manifestuaren baitan: “EEPren sorrera urrats garrantzitsua izan zen, euskalgintzak hamarkadetan zehar eraman lanaren ondoan, hizkuntza politika publikoa abiatzeko. Hogeitau urte berantago anitz egin da, eta anitz bada egiteko”. Hala nola, euskal hiztunen gainbehera gelditzea lortu da azken urteetan. Hala ere, proportzionalki euskaldunok geroz eta gutiago garen heinean –2006an %26,4 ginen, 2022an %19 eta 2050erako %16 petik izanen gara– egoera kezagarria dela nabarmentzen da manifestuan, erronka horretan jarriz: “Euskaldun kopurua mantentzea lortu den bezala, orain euskaldunen proportzioa garatzea dugu erronka, horren arabera izanen baita hizkuntzak jendartearen duen tokia eta hiztunek euskara erabiltzeko izanen dituzten aukerak”. Lortzeko bidean, benetako “plangintza bat”, hizkuntza politika “ausart” bat eta euskaldunen kopurua “%19tik %30era heltzeko bide-orri bat” galdatzen da manifestuan. Laugarren aldarrikapen bat ere dakar euskalgintzak: hizkuntza berreskurapenerako esperimenduzko lurralde izendapena lortzea Ipar Euskal Herriak. EEPren betebeharra oroitarazten da manifestuan: “Hizkuntza politika publiko partekatua landu, definitu eta obratzea da EEPren betebeharra. Ipar Euskal Herri mailan, bai eta erakunde bakoitzaren baitan. Zein da gaur egun Euskal Elkargoaren hizkuntza plangintza? Zein da departamenduarena? Eskualdearena eta Estatuarena?”.

Nahikeria eta ausardia izanez gero erronka gainditu daitekeela dio Euskal Konfederazioak: “Ez gara gehiago xixuketan aritzen ahal. Hizkuntza ere larrialdi egoeran da; baina fatalitatez ez da. Helburu adostuekin, arabera baliabideekin eta lankidetzaz sendo batekin, lortuko dugu euskarari etorkizun bat ematen. Egiatzko etxe finko bat behar dugu. Euskararen sustraiak zainduz, kimu eta landare berriak euskararen baratzea irekiz hizkuntza salbatuko dugu”.



**PLAZARA.** Irailaren 26an aurkeztu zuten euskararen erabilpena sustatzeko hamaika zerbitzu proposatu dituen Plazara izeneko eragile berria.

“Euskara maila sobera apala dute, aktibitateetan hizkuntza maila bizi-ki apala da. (...) Baina ez nau horrek gehien kezkatzen, hizkuntzarekin dugun harremana bizi guztian mugitu daitekeelako. Euskalgintzak duen baliabide eskasak nau kezkatzen. Euskararentzako arnaguneak gara eta ganibet bat dugu zintzur azpian”.

Konkolutzeko Arinek ezinbestekotzat jotzen du 0-3 urteetan murgiltze sistema garatzea. Horregatik bidali dieite Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herriko etxeei gutuna, euskara hutsezko haurtzaindegi edo haurzain etxe bat sortu nahi izanez gero laguntza proposatuz. Gaur egun, bakarrik hiru haurtzaindegi eta bost haurtzain etxe dute euskara hutsean zaintzen haurra –eta frantsesaz gain euskara ere dutenak %33 inguru dira, Leha izeneko labelaren pean saretuak direnak–. Interesa erakutsirik, berri batzuk gehitu beharko lirakeke gero hurbilean: Irulegi, Aiherra, Lehuntze, Bidarra... “Ez da bakarrik euskarara sartzeko ditugula umeak, euskal kulturara sartzeko ditugu, mundu batera, sustraietatik badute euskara”. Gainera, ondotik ikastola edota irakaskuntza elebidunean sartu ohi dituzte gurasoek, eta Arinek badaki zein den emaitza: “Irakasleek erraten digute frantses familia batean izanik ere euskara ulertzen duela haurrak”. Elebiduna garatzeaz gain, murgiltze ereduak sustengatu nahian, 7.400 euro bideratzen ditu Euskal Hirigune Elkar-

goak irekitako leku bakoitzarentzat.

Azkenean, elkarriketaturiko hainbatek ohartarazi duten gisara, euskalgintza “ekosistema” bat delako: elkar osatzen eta elikatzen diren eragilez osaturiko osotasun konpleto bat. Euskara ikasi nahi duenak, AEK beharko du, eta beharko ditu euskarazko komunikabideak, beharko ditu euskarazko aisialdiak, beharko du ingurune profesional euskalduna eta ikastolan dabilen umeak ere beharko ditu euskara hutsezko aktibitateak, beharko ditu irudimena euskaratik garatzeko euskarriak... Horregatik dabilta kolektiboki borrokan, nonbait badakitelako Ipar Euskal Herri euskaldunaren lorpena guztien artean dutela eskuragarri.

Eta horregatik, ezin da eragile berri baten sorrera traba bezala ikusia izan: “Euskalgintzan eragile berri bat heldu bada kanibalak bezala jokatzen dugu gure artean eta hori ez da normala, zeren elkar osatzen dugu denok”, dio Gorri. Baina hizkuntza politikarako aurrekontua eskasegia izanik –2017az geroztik emendiorik gabekoa, gainera–, bakoitza dabil berearentzat kezkatutik, prekarioa are prekarioago bihurtuko zaionaren kezka. Bizkotxa bakarra delako eta pasta emendatu ezean, bakoitzari banaturiko zatia ttipiagoko izanen delako. Eskerrak elkarlana dela nagusi eta guztiak baturik direla Euskal Konfederazioaren baitan. Demagun, azken urteetan Konkolutx, Plazara eta Euskaltzaleen

Topagunea loratu dira Ipar Euskal Herrian, desafio, ideia eta indar berriak gehituz euskalgintzara. Hori horrela, aurrekontuaren emendioak badu garrantzi handia, beharrak gora doazelako – herritarrenak baita eragileenak ere–.

## EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA: GARAPEN ESANGURATSUA

“Hiztun osoen kopurua emendatzea” zen 2006an adosturiko hizkuntza politikaren lehentasuna, eta hori “belau-naldi gazteen gaineko apustua eginez”. Zenbakiak argiki erakusten dute euskarazko irakaskuntzaren garapena: lehen mailan %42tik %70era pasa da euskara hutsean edo elebidunean bideraturiko hezkuntzarena azken hogeitertean, eta gaur egun haurren %42,1ek du irakasuntza elebiduna jasotzen.

Ikastolek garapena ezagutzeaz gain –2023-2024 ikasturtea 39 ikastolekin hasi du Seaskak, Kattalin Elizalde izeneko bosgarren kolegioa inauguratuz Senperen–, ama-eskola pribatu eta publikoetan ere garatu da azkarki murgiltze eredu: hamar eskola pribatu ziren duela hogeitertean eta orain 44 dira (24 publiko eta 20 pribatu).

Kolegio eta lizeo garaian, haatik, datuak ez dira hain gora: %23,6 da oraindik murgiltze ereduaren edo elebidunean lizeoaren bukaeran –Seaskaren baitan %44koa da lizeoko azken urtea arte ikastolan jarraituko dutenen kopurua–. Euskara maila eskasegiak ondorioztatu trabak dira ikasleak elebidun saila uztearen arrazoi nagusienetakoa, EEPk 2013an egindako ikerketa baten arabera.

EEPren balorapena egiteko orduan, hezkuntza arloan lorturiko aitzinamenduak nabarmentzen ditu Kurutxarrik: orohar euskarazko irakaskuntzak izan duen garapena, eta azken urteei dagokionez, murgiltze sistema eskola publikoan eskaini ahal izateko aukera eta brebeta euskaraz pasatzeko eskubidea ditu lorpenen artean. “Garaipen kolektiboak izan dira, euskalgintza gidari, hautetsiekien eta EEPrekin eramandakoak”. Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin “energia anitz xahutzen” dela dio, baina poliki-poliki, lan dorpe bati esker aitzinamenduak lortzen direla: “Gai minbera zen murgiltze ereduarena, baina orain ez da gehiago eztabaidagai, talde pedagogikoak horretan dira”.

Hala ere, Parisetik etengabe datozten oztopoei buruz galdetu eta zaila zaio parekoaren logika sesitzea: “Zaila zait ulertzea, juridikoki ere ez dute



**EEP ETA EUSKO JAURLARITZA.** 1.930.000 euroko dirulaguntza banatzen dio EEPk euskalgintzari, horietan 400.000 euro Jaurlaritzatik datoz.

“Ideien bataila irabazi dugu eta orain alde izatetik alde egitera pasa behar gara. Orain frogatu dezakete badutela alde egiteko borondatea”

**Eneko Gorri**

erantzun azkarrik parean, eta onartzen dute dioguna. Baina badira ohitura eta jarrera batzuk aldatzen ez direnak... Tokiko hizkuntzen gaia biziki urrun zaie, ez naiz ere segur makineria handi horrentzat gai bat garenik. Bada mesfidantza ere, betiko jabobinismoa; hizkuntza desagertzeko xedea denik ez dut uste, baina mesfidantza bai eta badaezpada, nahiago dute oztopatu”.

2050erako euskaldunen kopurua bikoiztearen helburua lortu nahi bada, beharko da bai ala bai segitu indarra ematen irakaskuntzaren alorrean: elebiduna garatu –kuantitatiboki eta kualitatiboki–, lizeora arteko jarraipena sustatu eta murgiltze eredu ere biderkatu.

Horrez gain, helduen euskalduntzea garatu beharko dela azpimarratu dute elkarrizketatuek. Jakinik aurreikuspe- nei segi urtero 3.000 etorkin datozela

bertara bizitzera –nagusiki Frantziako herritarrak–, euskalduntzerako ahalak eta kanalak biderkatu beharko direla diote. Gaur egun, 1.600 ikasle ditu Aek-k, guztira 22 herritan banaturik. “Ikasten dabilta, baina karrikan praktikatzeko aukera izan behar dute... erabilera ere sustatu beharra dago. Badugu errota bat eta arlo guztiak behar ditugu dantzan ezarri euskaldunok %30era iristeko gisan. Eremu guztietan behar dugu euskara erabilgarri, ikusgai eta ezagutua bihurtu. Gaur egun ez gara horretan”.

Ofizialtasunik gabe, instituzioen lehentasunetan ez deino eta Frantziaren Konstituzioko 2. artikulua etengabe ko traba den testuinguruan, euskalgintza sozialetik garatu beharko da berez zerbitzu publikoaren parte beharko litzatekeen eskaintza. Baina horretarako, bai ala bai baliabideak bideratu beharko dizkiete instituzioek, euskalduntzeak eta euskararen erabilpenak biderkatzeko gisan. Ilusioak, ametsak, ideia berriak eta proiektuak ez dituelako eskas euskalgintzak.

Halere, Frantziako Konstituzioa traba izanikan ere, instituzioek anitzez gehiago egin dezaketela uste du euskalgintzak: “Herriko etxeetako zerbitzuetan burubelarri euskara sartu dezakete”, Bordagaraien ustez; eta berdin Euskal Hirigune Elkargoak ere euskara gehiago sartu dezake bere egunerokoan. Hots, ofizialtasunaren aldeko borroka eraman gabe ere, euskarara bideratzeko leku andana dago oraindik. Baina horretarako borondate politikoa behar da. Baita ausardia pixka bat ere, jakobinismoaren haizeak azkar jotzen duelako oraindik ere. ●

# “ ”

## Kazetaritzan konpromisoa mantentzen jakin behar da, profesionaltasuna galdu gabe

Joxe Felix Azurmendi

*Xabier Sanchez Erauskin. Vida de un rebelde con causas* (Xabier Sanchez Erauskin. Kausak dituen errebelde baten bizitza) liburua idatzi du Joxe Felix Azurmendik (Durango, 1941), *Egin* eta *Deia* egunkarietako zuzendari izandakoak. Liburuan, datozen lerrootan, eta lerro artean, garai bati eta Herri bati buruzko lekukotasun ezinbestekoak daude.

 CIRA CRESPO  DOS POR DOS

**G**asteizko goiz hotz arrunt bat da. Autobus geltoki berrian elkartu gara. Joxe Felix Azurmendi Gasteiza maiz etorria da, baina auzo berri hau ez du ezagutzen. "Hotza da, baina ez eguraldiagatik, lekua da hotza", dio. "Bai, azken urteotan auzo berri asko egin dituzte Gasteizen". Nahiz eta nekez uzten duen bere kazetari sena alde batera, eta bera hasi niri galderak egiten, azkenean, bere lagun Xabier Sanchez Erauskini buruz hitz egiteko manera aurkitu dugu. Sartu gara tabernaren epelera, eta hasi gara hizketan.

### Zein da zuretzat Xabier Sanchez Erauskin?

Niretzat izan da laguna; ikuspegi aldetik antzekoa, bai profesionalki, bai aber-tzale gisa. Biok nahiko konprometitua izan gara, gaztetatik.

*Egin* egunkariko zuzendari nintzela ezagutu nuen; artean Xabierrek liburuak argitaratzen zituen, batzuk erdi klandestinoak, beste batzuk guztiz klandestinoak. *Eginera* editore batekin etorri zen. Txamarra handi bat jantzita, eta bi kamera zintzilik, eta grabadora bat... orduan ezagutu nuen. Handik urte batera edo bi urtera, berriz, *Punta y Hora* aldizkari zuzendari gisa etorri zen Hernaniko eraikinera lanera. Eta harrezkerro jada elkarren inguruan izaten ginen. Handik gutxira kartzelan sartu zuten. Kartzelako egonaldia buruz liburuan ere hitz egiten dut. Kartzelatik irten eta gero etorri zen *Eginera*, nire ordez.

Saso hartan, gainera, nire gurasoen etxe ondoan jarri zen bizitzen, eta oso harreman estua izan dugu. Eta oraindik ere hor jarraitzen dugu. Ni igandero mezetara ez, bera bisitatzeraz joaten naiz.

Gaixotu aurretik esaten nion, "ez zaitez gaixotu, bestela ez dut izango-eta gauza hauetaz norekin hitz egin".

### Eta orain, gaixo delarik, berari buruzko liburua idatzi duzu. Zergatik uste duzu dela garrantzitsua liburua?

Omenaldi gisa egin dugu, baina ez hori bakarrik. Nik uste dut bere biografiak zalantza asko erantzuteko aukera eskaintzen duela, baita hainbat galdera egiteko ere. Garai bat azaltzeko gizon eredugarria da: zer zen apaiz izatea? Zer zen konprometitua egotea Transizio garaian?

**Has gaitezen, bada, hasieratik. Xabier gasteiztarra da. Nolako zen Gasteiz garai hartan? Beti entzuten da "apaizen eta militarren" hiria zela, eskuindarra. Baina larruazal**



**horren azpian, bazen besterik?  
Bazen giro abertzalerik?**

Bai, hemen mugimendu abertzale garrantzitsua garatu zen. Gasteizko giro intelektualak abertzaltetasunarekiko joera zeukan 1936ko gerraren aurretik. Kualitatiboki beste leku batzuetan baino abertzale gehiago zegoen, izen oso ezagun batzuekin. Gero, gerra garaian, fusilamendu pilo bat izan ziren, erbesteratu asko, errepresio izugarria, gerra ondoko atxiloketa asko...

Xabierrek oso gogoan zeukan nola etorri zen Franco 1946 inguruan, Francisco de Vitoriari eskainitako monumentuaren inauguraziora, eta nola, goiz hartan, euria bezala goitik behera, ikurriñen eta erresistentziaren esku-paper jasa izan zen, eta nola bere eskolako apaizak korrika eta presaka denak jasotzen ahalegindu ziren. Gero, atxiloketa piloa izan omen zen.

“ ”

***Hala dio Erauskinen  
fitxa polizialak:  
'Ternuan egon zen  
bitartean separatismoa  
predikatzen jardun zuen'***

**Bera Gasteizko familia ezagun  
batekoa da, ezta?**

Bai, albaiteroak izan dira, bai bere aitona, bai bere aita. Aitaren beste bost anai, berriz, apaizak izan zituen, herri honetan horrek esan nahi duenarekin. Hau da: letretako gizonak, garai hartako unibersitarioak. Gasteizko familia abertzalea zen, eta frankismoan zigortutakoa. Aitari zenbait urtez albaitero izateko baimena kendu zioten, sentitarteko batzuk fusilatu ere bai...

**Sanchez Erauskin ere letretako  
gizona, ezta? Giro hartan elikatu zuen  
bere irakurtzeko eta idazteko gustua,  
agian?**

Bai, bere ahizpa idazlea da. Hala ere, giro hartan ere, bera beti izan da nahiko heterodoxoa.

**Intelektual hitzak ondo definitzen du  
Erauskin?**

Bai, eta ahaztu egiten dute hori.

**Non ikasi zuen?**

Apaiz-ikasketak egin zituen, baina ez edo-

zein lekutan, Comillasen baizik, eliteko eskola batean, eliteko gizona izateko. Han hasi zen interesatzen Teologia berriaz, eta apaiz ezkertiarren ideietan arreta jartzen. Kontatzen du Comillasen euskal seminaristak musika jotzeko batzen zirela, eta han ezagutu zituela itsasoko euskaldunak. Ba omen ziren kapitainen semeak, marinelenak... euskal giroan sartu zen (orduan hasi zen euskara ikasten) eta giro hori dago Ternuara joateko erabakiaren atzean. Zeren eta berak ez baitzuen ez Hegoamerikara ez Afrikara joan nahi izan... Ternuara, baizik. Hain zuzen, Saint-Pierre eta Mikelunen egin zuen egonaldia. Han galiziarrekin egin zuen harremana, batez ere. Hala dio bere fitxa polizialak: "Ternuan egon zen bitartean separatismoa predikatzen jardun zuen". Garai oso garrantzitsua izan zen bere bizitzan.

### Ternuan, apaiz aritzeaz gain, aldizkari batean kolaboratzen zuen. Han hasi zen idazten?

Beti idatzi izan du. Idazlea da. Umetatik idatzi ditu dietarioak. Inork ez ditu ireki oraindik, eta aztertu beharko dira uneren batean. Idaztea eta kirola egitea izan dira bere zaletasun handiak.

### Geroago egin zuen kazetaritza karrera, ezta?

Teologia eta Filosofia ikasia zen, eta kazetari egin zen *Los hombres del mar* (Itsasoaren gizonak) izeneko aldizkaria zuzendu behar izan zuelako; artean, Manuel Fragaren lege bat tarteko, zuzendari izateko kazetari titulua behar zen. Beti izan da gizon konprometitua, eta oso profesional zorrotza ere bai.


### Zure liburuak *Vida de un rebelde con causas* du izena. Txema Ramírez de la Piscina, artikulua batean, Sanchez Erauskin "Iubakiko kazetari" izendatu du... Zer moduzko lekua da Iubaki bat kazetaritza egiteko?

Jakin behar da konpromisoa mantentzen, profesionaltasuna galdu gabe. Zeren irakurleak ikusten badu oso abertzalea zarela, baina profesional kaxkarra...

*Egineko zuzendaria nintzela kazetari alemaniar batzuk etorri ziren bisitan, gure funtzionamendua ikustera, eta galdetu zidaten: "Zuretzat zer da egunkari batentzat garrantzitsuena?", eta erantzun nien: "Orduan ateratzea". Eta gelditu ziren harrিতuta. Noski. Gure egunkaria beste egunkariekin batera banatzen zen, eta ez bazegoen besteekin batera banatzailea iristen zen unean, ez zegoen banatzerik.*



Beste hau ere esan nien: "Hemen denok harmonian egiten dugu lan, ia denok helburuetan pentsatzen dugu, baina ordu batetik aurrera kapitaina daukan itsasontzi bat bezalakoa da hau, eztabaidarik onartzen ez duena, eta niri dagokit kapitaina izatea. Hurrengo egunean, kritika dezatela nahi dutena. Baina egunero atera behar den egunkari bat ezin da asanblearioa izan, erantzukizuna hartuko duen norbait behar du".



### Xabier Sanchez Erauskin.

*Vida de un rebelde con causas* (Joxe Felix Azurmendi, Arabako Foru Aldundia, 2023)

### Profesionaltasun faltagatik atera zen Xabier Eginetik?

Xabier *Eginetik* atera zen bertan nagusitu zen ildoarekin konforme ez zegoelako. Kritika zorrotza egin zuen, esanez *Egin* txarto politizatu zela, alde batera utzi zuelako, bere ustez –eta nire ustez ere bai– logika periodistikoa.

### "Guk politizazio adimentsu baten alde egiten genuen" zioen.

Kanpoko itxurari ez zion garrantziarik ematen. Baina beti saiatzen zen konpromisoa eta profesionaltasuna mantentzen. *Egin* asko saltzen zen, eta oso egunkari importantea zen, ez bakarrik ezker abertzalearentzako, langileentzako, emakumeentzako... profesionalak ginelako lanean. Gazteak ginen, ondo saltzen zen, eta guztiak pozik zeuden, ezker abertzaleko buruak izan ezik.

### Gogorra izango zen *Egin* uztea.

Oso gogorra izan zen bai, eta oso hase-rre irten zen. Herri Batasunako mahaia nazionala ere bere kontra... Esan zuen: "Ordezkorik ez duen proiektu bat hondatuko duzue, eta luxu handiegia da hori guretzat".

### 1993an *Egunkaria*-ra idatzitako gutun batean hau zioen: "Ez dute kritika onartzen, eta are gutxiago autokritika...". Euskal Herrian autokritikarako gaitasun falta dago?

Begira, horrek politikarekin zer ikusi haundiagoa dauka kazetaritzarekin baino. Egunen batean idatziko dut... badakizu





ezker abertzaleak zergatik ez duen autokritikarik egin? Bada, hasteko, aldaketa asko egon direlako. ETA desegin zenean ez zegoen erakundearen hasieran ibilitako inor jada, ez da egon jarraipenik. Orduan, ezin autokritikarik egin, nahita ere. Ez dago bururik esan dezakeenik, "hau egin nahi izan genuen, eta gero hau pasatu zaitzagun, eta gero bide okerra hartu genuen...". Eta autokritika ezaren beste arrazoi bat da gaur egun debate batzuk oraindik ezin direla publikoki eman. Baina, seguru nago, pribatuan izan dira kritikak eta autokritikak.

#### **Egin utzi eta gero, unibertsitatean irakasle aritu zen. Gaur egungo kazetaritza nola ikusten du?**

Erabat desberdinak dira gaur egungo kazetaritza eta berak unibertsitatean ikasi eta irakatsitakoa. Ez bakarrik ideologikoki, formalki ere bai. Gaur egun ia ez da egunkaririk erosten... nola eta non irakurtzen dira gaur albisteak? Irakurtzeko eta informatzeko beste modu bat ari da sortzen. Hondar bat geratzen dela uste dut, baina oso zaila da jendea nola informatzen den kontrolatzea ere. Eta kuriooa da, sareetan zein astakeria esaten diren ikusita, Euskal Herrian behintzat emaitza politikoak eta gizartea bera nolakoak diren.

EAJ zergatik ez da PPrekin joaten? badakielako boto emailen artean ere nahiko giro aurrerakoia dagoela. Hori ikusten da Sahara dela, edo Palestina dela... eta ez da ezker abertzalekoak direnik, baina giroan dago. Hori gutzia, komunikabideen %

## “ ” **Eitb-koek pentsatzen dute euskaran inbertitzea ezker abertzalean inbertitzea dela**

90ek esaten eta irakasten dutena kontra-koia izanik. Zer da? Ez direla komunikabideok ikusten, ez direla entzuten? Ala herritarrak ez direla fidatzen, eta badakitela ematen dizkieten mezuak irakurtzen?

#### **Badu Euskal Herriko kazetaritzak berezitasunik?**

Oso kuriooa da. Transizioan bazirudien frankistenak izandako egunkariak porrot egingo zutela, eta batzuk bai, baina beste batzuek indartsu jarraitu zuten. Denok pentsatzen genuen, Herri hau abertzale izanda, bai *Deiak* bai *Eginek* indar handia izango zutela, baina ez da hala izan. Kuriooa da *El Correo Español*en nagusitasuna, *ABC*ren antzeko ildo editorialekin... Euskadi da, esango nuke, toki bakarra zeinetan herritarrek, bozka emateko orduan, ez dioten jarraitzen irakurri ohi duten komunikabidearen ildoari. Prentsa abertzaleak oso indar gutxi dauka, espero zena baino gutxiago, behintzat; ez du jakin gehien-goetara iristen. Abertzaleek ez dute ja-

kin beren prentsa maneiatzen. Ez dute ulertu nahi izan egunkari baten papera ez dela alderdiko prentsa izatea.

Euskarazko prentsari dagokionez, azalpena beste bat da, hizkuntzarena noski. Baina, *ARGIA*k adibidez, ETArekin garai gogorrenetan nahiko askatasun mantendu zuela esango nuke. Pello Zubiriaren garaietan, izango ziren presioak, baina duintasun handiz jokatu zuten... eta orain ere bai. Ahalegina egin behar dugu denok kazetaritza duin bat egiteko. Eta gaur egun, niretzat, *Garak*, *Berriak* eta *ARGIA*k kazetaritza duina egiten dute; baina zenbat jende irakurtzen ditu?

Ikus-entzunezko munduari dagokionez, gauza bera: ETB1 ez du ia inork ikusten. Badakitelako euskarak edo euskaldunak ezker abertzalearen munduan mugitzen direla. ETArekin aportazio garrantzitsua izan zen aurrerakoia izatea zentzu zabal batean, eta eman zion euskarari garrantzi handia, eta hori islatu da gero ezker abertzalean eta euskal munduan. Eitb-koek pentsatzen dute euskarari inbertitzea ezker abertzalean inbertitzea dela.

#### **Zer dute ikasteko kazetari gazteek Erauskinengandik?**

Lanbidea nola defendatzen eta maitatzen den, eta nola mantendu ilusioa. Gu beti gauza berrien bila ibili gara. Hori esan nahi dut: ilusioa ez galdu, eta mantendu zure ideiak, zure duintasuna. Izan pertsona askea, baita bozka ematen diozun alderdiarekiko ere. ●



# Zer identitate da norberaren hizkuntzarik gabeko hori?

**Carlos Santiago Moreta Cachiguango**  
Kitxua hiztuna

Carlos Santiago Moreta kitxua hiztuna da gaur egun. Ekuadorreko Otavalo herrian jaio zen, Imbabura probintzian. Gaztetxo zela sartu zuen muturra Imbaburako Kitxua Gazteen Elkartearen. Han jabetu zen hizkuntzaren garrantziaz. Indigena bai, baina ez zuen etxeko hizkuntza hitz egiten. 12 urterekin hasi zen hizketan, eta gaur egun, hizkuntza biziberritzeko lanean ari da buru-belarri.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Iragan urriaren 2tik azaroaren 9ra Garabide Elkartearen Hizkuntzak Biziberritzeko Aditu Formazio Programa gauzatu zuten hamabi hizkuntza gutxiagotutako hamasei ordezkari Aretxabaletan (Gipuzkoa). Erdialdeko eta Hego Amerikakoak gutiz gehienak, bazen Afrikatik etorritakorik ere. Egonaldiaren amaieran, kitxuaren berri eman zigun Ekuadorretik heldutako partaideak.

## Carlos Santiago Moreta...

... hurrengo Cachiguango, izen kitxua natiboa, alegia. Ekuadorren ez dago deitura kitxua askorik, baina batzuk bai, hala ere. Imbabura probintzian jaio nintzen, Otavalo udalerrian; horrek ere, lehenago, Sarance zuen izena, baina Otavalo da konkistaz gero. San Juan de Ilumanen bizi naiz, Otavalotik bertara. 1986an jaioa, Gizarte Komunikazio gaietan trebatzen ari naiz, 15 urtez gero izan

baitut irratigintza eta komunikazioa lantzeko zaletasuna. Aitagandik datorrik joera, irрати zale amorratua baitzen.

## Zer bide egin duzu kitxuari dagokionean?

Gazterik batu nintzen AJQIra, zeina baita Imbaburako Kitxua Gazteen Elkarte, alegia. Elkarrekin hainbat proiektu zituenu, eta ditu, Otavaloko kitxua herriaren kultur identitatea sustatzeko edota berreskuratzeko. Niri dagokidanez, elkartean sartu orduko, hizkuntzaren auziak harrapatu ninduen. Indigena naiz sortzez, baina ez nuen kitxua hitz egiten. Gurasoek hitz egiten zuten, baina hein batean besterik ez. Hizkuntzaren erabilera “estrategikoa” egiten zuten; zerbait pribatua zenean-eta, jotzen zuten kitxuara. Nik uste konkistaren menderakuntzaren ondorio zela, kontsigna zaharren ondorena: “Kitxua hitz egitea

bekatu da... Kitxua hitz egiteak isuna dakar, kartzela-zigorra...”. Halakoak beti.

## Baina, zuk giro hori ezagutu duzu? Oraindik orainoa da?

Giro hori ezagutu nik, hein batean baizik ez. Haatik, gogoan dut behin, eskolaren bat jasotzera hirira [Otavalo] joan, eta, hiriaren erdialdera sartuta, espainiera hitz egiten zuten mestizo batzuk ikusi nituela indigena bat bortxaz tratatzen, kitxuaz hitz egiten ari zelako, hain zuzen. Tokia arretagune bat zen, eta, oroz gain, adinekoek jotzen zuten hara, argindar zerbitzua eteteko eskatzera, adibidez. Kontua da mestizo haiek gaizki tratatzen ari zirela indigena hura: “Kitxua hizkuntzak hemen ez diru balio, hitz egin *kristianoz!*”. Niretzat bortxa hura gauza berria zen, eta zausk egin zidan. Etxera itzuli, aitaita-amamei ikusitakoa kontatu, *tulpa*-ren [beheko sua] inguruan jarrita geun-



“Mestizoak ikusi nituen, indigena hura gaizki tratatzen: ‘Kitxua hizkuntzak hemen ez dizu balio, hitz egin *kristiano*z!’, eta horrek zausk egin zidan”.

dela beren bizipenez galdetu, eta beren larruan ezagututakoa kontatu zidaten. Gaztetan etxaldean lan eginak ziren, eta errealtate garratza bizia zuten. Orduan ere, maiordomoak, edo patrioiak, ez zituen ongi tratatu.

#### **Indigena zarella, baina ez zenuela kitxuaz hitz egiten azpimarratu duzu gorago...**

Halaxe da. 12 urte nituela-edo hasi nintzen ikasten, Kitxua Gazteen Elkarteari esker. Hori baino lehen, amarekin nola-hala hitz egiten nuen kitxuaz. Aitarekin, beti gaztelaniaz, baina egiaz hura ez zen gaztelania ere, *chapushca* bat baizik, nahaste-borraste bat. Gazteen Elkartean

“ ”  
Uste dut kitxua transmititzen asmatuko dugula, hemen izan eta gero, modu efkazgoan jardungo dugula lanean

ra sartu nintzenez, ohartu nintzen kultur identitateari dagokionean sakontzea zela helburua. Eta, jakina, identitate horren barruan dira hizkuntza, janzkera,

ohiturak, dantza, musika... Xede horren eragile nagusi, eta kitxuaren lehen irakaslea Gonzalo Díaz izan zen. Bisio horixe izan zuen: irratsaio guztiak kitxuaz egitea. Hizkuntza ikasteari dagokionez, asteburuan pare bat eskola izaten genituen. Indigena nintzen, baina ordu arte irakasleak kontsideratzen zuen ez bezala kontsideratzen nuen nik kitxua.

#### **Eta nola kontsideratzen zenuen zuk kitxua?**

Esate baterako, elkartean hainbat kitxua hitzun ziren, baina hitz egiteko lotsatan bizi ziren, kalean hitz egiteko errezelotan. Zaila zitzaien irratsaio batean kitxuaz hitz egitea. Gogoan dut orduantxe erabaki eta esan nuela: “Irratsaio bat nahi dut, kitxuaz hitz egiteko”. Eta ez nintzen ongi hitz egiteko gai, baina, hala eta ere, hasi nintzen. Eta poliki-poliki, kitxuaz mintzatzen trebatu nintzen, eta inoren lotsak eta errezelok gainditu, eta egin nuen irratsaioa. Erroetara itzuli nintzen, inportantea iruditu zitzaidan: indigena nintzen, bertako janzkera ibiltzen nuen, baina ez nuen kitxuaz hitz egiten. Orduan, zer identitate da norberaren hizkuntzarik gabeko hori?

#### **Zertan da kitxuaren ezagutza Ekuadorren?**

Ezagutzarik handiena iparraldeko Andeatako lau indigena-herrietako jendearen artean da, hau da, Imbabura probintzietan diren Otavalo, Karanki, Natabuela, eta Kayambi herrietan, Klonbiako mugan. Hitz egin ere, hantxe hitz egiten dute kitxua gehiena. Andean, baina hegoaldera, badira kitxuaz mintzo diren herri gehiago ere. Imbaburari dagokionez, nik esango nuke %60 kitxua hitzunak direla, baina esan dizut, bateko lotsa, besteko beldur eta errezele, askoz gutxiagok hitz egiten dute. Ni neu ere, adibidez, adinekoekin kitxuaz mintzo naiz nire herrian, San Juan de Ilumanen. Hirira orduko, ordea, eta nahiz eta ez dudan gaztelaniaz guztiz zuzen hitz egiten, espainolez hitz egiten dut.

#### **Zer lege-aitortza du zuen hizkuntzak?**

Aitortzarik ez du. 2007ko Konstituzioan, Ekuador estatu nazioaniztuna eta kultur aniztuna zela erabaki zuten, eta gure hizkuntzari ofizialtasun estatusa onartu zioten. Sozialismoa Venezuela, Bolivia eta gainerako herrietara zabaldu zen garaia duzu. Kitxuaren onarpen hori ez zen besterik gabe etorri, ezpada gure zenbait erakunde politiko –Conaie, Ecuatorunari,



Fici...-, helburu hori lortzen saiatu zirelako. Erakunde politiko horien ardura da Ekuadorreko Gobernuak herri eta nazionalitateen aldeko politikak eratzea. Orduko hartan, gobernuak kitxua hizkuntza ofizialtzat hartzea lortu zuten, eta harrezkero hortxe da hizkuntzaren ofizialtasuna Konstituzioan, eta bateko agiri eta besteko dokumentutan: paperean. Baina paperean besterik ez, horrek ez baitu errealitatean ondorioz izan, islarik ez. Zorigaitzez, agindutakorik ez da gauzatu: hitza da dena, egintzarik ez.

#### **Zertan da kitxuaren belaunez belauneko transmisioa?**

Gure alderdian, transmisioa %30-40an besterik ez da gauzatzen. Nire lehengusu-lehengusina askok -hogei laguneko pertsona multzoaz ari naiz-, ez dute kitxuaz hitz egiten, edo erdizka hitz egiten dute, errezelotan, lotsatan... zuzen hitz egingo ote duten, inork burla egingo ote dien. Gazteen artean asko zabaldua da konplexu hori. Gaitz erdi, baditugu kitxuaz kantatzen duten musika taldeak, tendentzia dira gaur egun, eta beren kantuen bidez kitxuaz ziurtasunik gabe hitz egiten duten gazte horietara heltzen dira. Hori baliatzeko asmoa dugu.

“ ”

Poliki-poliki, kitxuaz mintzatzen trebatu nintzen, eta inoren lotsak eta errezelok gainditu, eta egin nuen irratsaioa.

Baditugu kitxuaz kantatzen duten musika taldeak, tendentzia dira gaur egun.

#### **Kitxuak badu sarbiderik hezkuntzan?**

Orain dela zenbait urte, Ekuadorreko Gobernuaren barruan bagenuen halako ministerio bat, Hezkuntza Kulturantz Elebidunarena. Instantzia horretatik probintzia-zuzendaritza bat eratortzen zen, ikastetxeetan irakaskintza kitxuaz egin zedin bultzatzen zuena. Ministeriotik agintzen zen kitxua-irakasleak ere izango

zirela. Oraingo gobernu, ordea, aurreko ministerio haren asmo onak saihesten saiatu da. Laguntzeko itxurak egin, bai, baina, zinetan eta minetan ezer egin, ez. Edo alde batetik egin, eta bestetik desegin. Kontraesanean jardun, alegia. Zorigaitzez, ministerio hura desegin egin zuten, kitxua irakasteko asmo hura hezkuntza sistemaren barruan urtu zen. Handik hona, haurrei kitxua irakasteko programarik ez da. Indigenen komunitateetan badira eskolatxo batzuk, baina gaztelaniatik kitxuara zenbait hitz itzultzeko besterik ez. Kitxuazko irakaskintzarik ez da.

#### **Eta hedabideetan? Bada kitxuazko prentsa, edota irrati-telebistarik?**

Kitxua Gazteen Elkarteak irrati emisore bat du, kitxuaz guztiz, eta hainbat kultur irratsaio. Horrekin batera, baita aldizkari bat ere. Iraganean bizi izan dugun hizkuntz egoera kontatzen dugu, eta, horrekin batera, oraingoa: kitxuaz kantatzen duten musika taldeen berri ematen dugu, adibidez, haien musika ipintzen dugu, kitxuaz hitz egiten duten haurrak entzunarazten ditugu... Hogeitaz damatzagu irrati lanean, eta ez da erraza izan. Bestalde, beti pentsatu izan dugu hedabide alternatiboak garelako, komunitatearekin,

kabildoekin eta hurrekin bat eginak, gorago aipatu dudan Gazteen Elkarrekin horrek ere halaxe agintzen baitu bere klausuletan. Eta, horrela, alternatibotzat identifikatu izan dugu beti geure burua. Eta, gutaz landa, ez dago kitxuaz ari den beste irratirik, gure funtzio bera egiten duenik. Guk, hala ere, gure hizkuntza eta kultura proiektua urrutiago eraman nahi dugu, eta gure hedabide horretatik bestelako hedabideetara heldu, izan hedabide pribatuak edota komertzialak.

### **Eta lortu duzue urrutiago eramaten?**

Saiatu gara, baina hedabide horiei bost axola kitxua, dirua beste helbururik ez dute. Gure probintzia berean, esaterako, bada beste irratia bat, eta gure programazio-parrilla bertua du, baina, zorigaitzez, haiekin bildu izan garenetan, kitxua sustatzeko hitzarmenak egiteko, adibidez, betikoa: "Eta kitxua sustatzearen truke, diru-ordainik emango diguzue?" ... Telebistari dagokionez, zorigaitzez, kitxuaz ez dugu. Iparreko Unibertsitate Teknikoak badu telebista kanal bat, gobernuarena, eta eskualde mailakoa. Unibertsitatekoa denez, ordea, haien edukiak ere halakoxeak dira, akademikoak, oroz gain. Zorigaitzez, ez da kitxuazko telebistarik jendearentzat.

### **Eta informazio eta komunikazio teknologietan, tokirik egin du kitxuak?**

Digitalitatea dela-eta, oraingo egunean nornahi ari da edukiak sortzen, eta horixe ikusten ditugu batzuk: "Eta nola esaten da bat kitxuaz?... *Shuk*. Eta nola esaten da bi? *Ishkay*... Segitu gaitzazue gure sare sozialetan!". Eta kito. Hori ere tententzia da, nornahik egiten du. Horretan gaituzue, eta hona etorri, zuen herrialdea ikusi, hedabideak ikusi, eta zausk egin dit ikusitakoak: zuen irratia-telebisten egitura, hizkuntza biziberritzeko indarra, euskarari eusteko borondatea... Orainxe hartu, eta eramango nuke hemengo eredia gure herrira, hantxe aplikatu. Ez da egun batetik bestera lortuko, baina bideratzen hasi nahi nuke, behintzat.

## Zirkua, eta manifestazioa

"Esperientzia berezi bat izan dut hemen egon garen bitartean. Garabidek zirkura eraman gintuen: Euskal Zirkua. Euskaraz! Hunkigarria izan zen! Hitzak ez ulertuta ere, ongi sentitu nintzen: etxean. Emozio bat izan zen, esplikaezina. Eta kale izenak euskaraz ikustea, edo euskaraz eta gaztelaniaz, eta Bilboko manifestazioaren irudiak... Ez nintzen han izan, baina irudiak ikusi nituen, eta nire Whatsappean jarri nituen, nire lagun Ekuadorrekoek ikusteko, galdera eginenez: 'Noiz elkartuko ote gara denok, gure anai-arreba euskaldunak bezala, gure hizkuntzaren alde, kitxuaren aldeko manifestazioan?'. Eta hainbat mezu jaso nituen, harriturik nire lagunak: 'Eta hizkuntzaren defentsan irten dira horiek denak? Hainbeste jende?' ... Sei aste izan dira Euskal Herrian, baina zenbat ikusi dudana, eta zenbat ikasi! Ekuadorrera itzuli, eta egingo dudana lehen gauza izango da kitxuaz ari diren musika taldeekin biltzea -goraldian baitaude-, eta gazteetara hurbildu, eta eduki berriak asmatu... Hamaika gauza bururatzen zaizkit, baina, azkenean, dena gauza bat besterik ez da: dena kitxuaz egitea, kitxuaz kontsumitzea, kitxua estimatzea..."

### **Zer ikusi duzu gure artean egin duzun egonaldian?**

Euskal Herrian, dena artikulatuta dagoela, eragileak badirela, eta bakoitzak bere espazioa duela. Gure herrialdearekin konparatzerik ez dago. Guk hizkuntza proiektu bat aurkeztu eta garatu nahi izanez gero, eta gobernuari laguntza eskatu, ez dakit ezer lortuko ote genukeen. Hitzak bai, "eleoniztasuna", "kulturaniztasuna"... baina errealtatean, hutsaren hurrena. Hala ere, jakingarri bat: iragan urriaren 12an, Aretxabaletan geundela, albiste bat jaso genuen Ekuadorretik, esanez Imbaburako prefeturak ohar bat argitaratu zuela, esanez kitxua hizkuntza ofizialtzat hartua zela delako prefeturaren. Arreta eman zidan: historian lehenengo aldiz, gisako erabakia hartu zuten nire probintzian. Bistan da, AJQI eta gainerako elkarte eragileen lanari zor zaiola gure hizkuntzaren onarpen ofizial hori.

### **Lan munduan, negozioetan, kiroletan...**

Kitxuarik ez, zorigaitzez.

### **Lehen aldia duzu Garabiden, baina zure komunitateko kide bat baino gehiago ezagutu dugu Aditu formazio programan...**

Zinetan diotsut, bata da inork hemengo kontatzea, eta bestea, zeharo diferentea, zeure begiz ikustea. Motibagarri da, guztiz. Asko ikasi dut, egiten dugunari nola zentzua eman, prozesua nola bideratu, nola garatu, nola artikulatu gauza guztiak, kitxua biziberritzeko eta sustatzeko bideak zein izan litezkeen ohartzeko... zeren eta, bai, kitxuaz hitz egiten dugu -pentsatu gabe, kasik-, baina hizkuntza nola ondorengotu, nola transmititu, nola bermatu erabilera... besterik da. Hemen egon, eta bestelako zentzua hartu du egiten dugun lanak, eta uste dut kitxua transmititzen asmatuko dugula, hemen izan eta gero, modu efikazagoan jardungo dugula lanean. ●


BABESLEA:



**HIZKUNTZA**  
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"  
Antoine de Saint-Exupéry



# AUZOKOAK EGINDAKO LANAZ



JOSEBE BLANCO

**U**dazkena etorri da aurten, ni fede handirik gabe nengoen arren. Ez dakit zein mirari tarteko, hostoek erabaki dute orbel bilakatzea; eta jantzi egin dituzte bideak eta bazterrak, gorritz, laranja, horiz eta berdez. Zuhaitz guztiek bat egin dute manifestazio erraldoian, baita alertzeek ere, udazkenaren existentzia bera aldarrikatzeko, azkena balitz bezala.

Urrezko aldapek irauteko ahaleginetan, etxerako bidea patinaje pista bilakatu dute, ibilgailurik pasa ez dadin. Orkatzek eta basurdeek festa dute, eta bidea zeharkatzen dute goitik behera eta behetik gora, lurrezko lorratzak kaminoan utzita. Zalan-tzan ziren harriek bat egin dute manifestazioarekin, udazkenarekiko elkartzasunez.

Espero ez zuten gonbidatuak zain ziren: egur-zaleak. Entresakatik ateratako egurra bide bazterretara heltzeko, aldapan behera botatakoan eramandako lurrak eta harriek ere ohantzea topatu dute bide erdian.

Eta orain? Orain garbiketa brigadaren ordua heldu da, menditarrak segurtasunez etxeratuko badira. Menditar gutxi geratzen dira bazter hauetan, hiru etxetan baino ez dago surik egunero; bi etxetan, 2,3 kilometro dituen bidea garbitzeko sasoi duen jendea.

Kilometro horietan, ordea, zuhaitz-lan-



PAULO ETXEBERRIA / CC BY-NC-SA 2.0 DEED

daketak daude bidearen kontra; osasuntsu batzuk, gaixo bestetzuk. Denboraleak botatako enbor zatiak baztertu ditu menditarrak behin baino gehiagotan, jabea ez dela azalduko ongitxo baitaki. Nola jaitsi, bestela, institutura doazen gazteak autobus geltokira, edo gazta banatzera edota Azkoitiko azokara ogia saltzera? Nola etorriko zereala dakarren kamioia? Eta irina?

Auzolana antolatzea pentsatu du menditarrak, ezin baitio eskaini goiz gehiago bidea garbitzeari. Urliari deitu, sandiaren telefono zenbakia eskatu, berendiari zeuk abisatu... Gutxi batzuek hartu dute deialdia erantzukizunez, hiruk. Gehiengoak aitzakiaren atzean gorde dira; etorri ezean, 50 euroko ekar-

pena egin beharko duela entzun arte. Azkurak, akaso, mugituko ditu auzolanera.

Auzolanari eta azkurari uko egiten diotenak ere badira. Haiek zergak ordaintzen dituzte. Kaletarrek ez dituzte kaleak garbitzen. Gutxitan erabiltzen dute bidea. Joan dadila menditarra udaletxera eskatzera.

Isilpean geratu dira hutsik dauzkaten baserriak eta egurrekin ateratako etekinak. Isilpean, menditarrak hemen daudelako haiek ere badutela bidea. Isilpean, menditarraren lanari ateratako etekina.

Auzolana auzo geratu da. Lehen gurea zena, orain auzoarena. Auzoak egingo du. Auzo geratu da auzoa.

Bideetako orbelezko tapiz koloretuak lokatza ere ezkututzen du. ●

## Gabonetan ere ekologikoa, dena hobetzeko.



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:



## A ZE FAUNA!

## UR HOTZETAN UR EPEL



**NAGORE ZALDUA MENDIZABAL**  
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA

**H**obeto ezagutzen dugu ilargiaren gainazala, inguruzten gaituzten ozeano, itsaso eta ur sakonak baino. Eremu urdin eta zabal horietan murgilduz gero, telebistako dokumentaletan lurralde urrun, bero eta exotikoak erakusten dizkigute. Ametseta-ko uharte huts bateko kokondo okerren baten aldamenean, dortoka eme bat ikusten dugu ilargiaren argipean arrautzak erruten, begiak malkotan dituela. Sekula pentsatu al duzu dortoka hori gure kostaldean ikus daitekeenik? Bada Bizkaiko Golkoko itsas bazterretan arrantzaleek noiz behinka ikusteko parada izaten dute, erne ibiliz gero, haren larruazal beltzak bat egiten baitu Kantauri itsasoaren kolore ilunarekin.

Zortzi dira Lurreko ozeanoetan ezagutzen diren itsas-dortokak. Larruzko dortoka da, ordea, ikusgarri eta erakargarriena, hainbat nolakotasunek bestegandik bereizten baitute. Hasteko, izena esanguratsua da. "Laute dortoka" bezala ere ezagutzen den arren (instrumentuaren formarekin duen antzekotasunagatik), "larruzko dortoka"-k men egiten dio berezitasun nabarmenenari. Izan ere, honen gorputza larru beltz eta leun batekin biltzen du, gainazal leun eta aldi berean sendoak. Gainazal ilun hau, gau iluneko izarrak bailiran, orban argiz zipriztinduta ageri ohi da. Bere oskolak luzetara 7 gila ditu, egurrezko txalupa baten karelaren itxurakoa. Aurreko bi hegats handiekin batera, gila hauek bere igeriketan lagunduko dute, itsas dortoketan hidrodinamikoena eginez. Itsas dortoketan handiena izateaz gain (916 kg eta ia 2 m-ko aleak topatu dira), azkarrena ere bada uretan, nabigazio transozeaniko handiak egiteko ahalmena duena.

Kostalde beroetan (Mexiko, Brasil, Guyanak...) ernalketa burutu eta errute garaia amaitutakoan, udaberri-udan larruzko dortoka iparraldeko bazka lekuetara abiatzen da, Bizkaiko Golkoa izanik



JASON ISLEY

bere helmugetako bat, Ipar Atlantikoko ekialde nahiz mendebaldearekin batera. Bere aho eta eztarriaren morfologiak argi adierazten dute animalia honek duen elikagaiarekiko espezifikotasuna: izaki lirdingatsuz soilik elikatzen da (hala nola salpaz, marmokaz eta abarrez) eta horretarako du hain moko berezia, keratinizatua eta W forma duena, harrapakin lirdingatsua harrapatzeko egokitua.

Halako itsas-bidaia luzeak direla medio, larruzko dortokak ezinbestekoa du gorputzeko tenperatura erregulatzea. Izan ere, narrastia izaki, ektotermoa da: gorputzeko tenperatura kanpoko tenperaturak baldintzatzen du. Larruzko dortokak beste itsas-dortokek baino egokitze-ahalmen zabalagoa du, besteei ez bezala, ur hotzetan elikatzeko aukera ematen diona. Duen tamaina handia eta gantz kopurua bere odoleko tenperatura aldaketak mantsotzeko lagungarri badira ere, espezie honek termo-erregulaziorako super-botere ezkutu bat du: bere aurreko eta atzeko hegatsak funtzio honetarako moldatuta daude, haien zirkulazio sistemak korrontearen kontrako bero trukagailuak dituzte, bero galera murrizteko. Esan genezake, beraz, larruzko dortokak *high tech* galtzerdi bikainak dituela.

Animalia honek badu berezi egiten duen beste ezaugarri bat. Nola daki, bere bidaian aurrera egin ahala, noiz iristen

## LARRUZKO DORTOKA

*Dermochelys coriacea*

**TALDEA:** Ornoduna / Narrastia

**NEURRIA:** 1,80-2,20 m luze.  
250-900 Kg artean.

**NON BIZI DA?** Itsas zabalean, munduko ozeano guztietan.

**ZER JATEN DU?** Ornogabe lirdingatsua.

**BABES MAILA:** Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen zerrendan: Kaltebera.

zaion berriz ur beroagotara bueltatzeko ordua? Erantzuna buruko orban arrosan dago. Bakoitzak orban desberdina du, ikerlariak bakoitza bereizteko "hatz-marka digitaltzat" erabili ohi dutena. Zertarako dute orban berezi hori buru gainean? Leiho bat da, argia garuneraino helarazteko. Orban arrosaren azpian dagoen egitura eskeletikoak, argiaren aldaketarik txikiena ere atzematen du; horrela, orban hau dortokaren erloju biologikoaren leihoa dela esan genezake, bazka gune horietatik noiz alde egin behar duen esaten dion iratzargailua. Udazkeneko ekiluxean (egunak 12 ordu argi eta 12 ordu ilun dituenean) argi aldaketak hautematen ditu eta hegoalderanzko bidaia hasiko du, euskal kostaldetik gertuago dauden bazka-guneak utzi eta tropikoetako ur beroagotara itzulerako bidaia hasiz.

Larruzko dortokak ez du GPS gailurik, ez berokirik, ezta Internet-en beharrik ere. Eta hala, munduan zehar bidaia transozeanikoak egiteko gai da, ilargi, argi, korrante eta abar irakurriz, bere sorlekua den hondartza eta bazka eremuak aurkitzeko. Whatsapp-ik ere ez dute behar elkar topatu eta hitzordua jartzeko. Eta ikusi dugunez, halakoak ez dira soilik Cabo Verdeko edo Guyanako ur tropikaletan bizi. Ozeano osoa da haien bizilekua, eta errute hondartzak bezainbeste behar dituzte elikatzeko eremuak. Gai izango al gara haien bizilekua errespetatzeko? Gure kostaldea haiena ere badelako. Eta bestela, egin dezagun behintzat hondartzetan hain deseroso egiten zaizkigun marmokak jaten dituztelako. ●

# BEGIZTA ITXIA ONGARRIKETARAKO



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**N**eguak hatz artetik ihes egin aurretik izan gogoan: datorren sasoiaren oparotasuna orain eraiten da. Hezetasun hotzak eta neguko solstizioaren ospakizun jaiegunen bezperen bezperak kizkurtu egiten gaitu eta beroaren ondoko galbanetan sartzen. Nagikeriak ahaztu eta heldu ongarriketari. Egutegiko udazken negutsu hau da ongarriketa nagusirako sasoa. Ongarriketa nolako, hurrengo uzta halako. Eskualdearen arabera, negua luzea eta gogorra izan daiteke; galdetu Abaurregaineko 1.000 metrotik gorako baratzeetan... Udazkenean lurra gaitzen denbora eta eginahal pixka bat emanez, hurrengo urteko baratzearen arrakasta hagitx erraztuko duzu!

Berdantzart izan dugun uztaren amaiera emozioen saskia da. Uztako mozkinak bildu, jaso, iraunarazteko lehortu, zintzilikatu, izoztu eta gero animoaren jaitsaldia, baita erorialdia ere badatoz, neurri batean. Beheraldi latza da baratzea "utzi" beharra, landareen udako hazkundearen bor-bor hori ez ikustea, barazkiak bildu ahala jate hori urritzea, loreen miraria ia desagertzea, fruitu usainik ez izatea... Baina berdantzart arteko aurtengo lanen eta emaitzen porrotez eta arrakastez gogoetatzeke garaia da.

Udazkena aro aproposa da belarra, arbolak, zuhaixkak, landare iraunkorak, baratzea, soroa eta abar ongarrizkeko. Baina behar bezala egin behar: hilabete fresko hauetan, negua nolakoa den, gogorra edo leuna, erabat lozorroan egon daitezke edo oso-oso poliki



hazten. Ongi ongarrizkeak loari eta hurrengo berpizteari lagunduko die.

Landareei lagundu nahi badiegu, lurzoruaren osasuna modu naturalean berreskuratzea beti izan behar da lehen aukera. Bestalde, ahal dela, etxean sortu ongarrria; garraioak kostua eta kutsadura dakartza. Zirkulua bertan ixtea, begizta itxiarena da ongarriketa araurik onena.

Soropila ongarrizkeko bertan utzi moztu eta txikitutako belarra; behar duen janariaren erdia izango da; gaintontzean zabaldu inguruko orbela edo luarra, mehe-mehe.

Azpian mantendu arbolen eta zuhaixken hostoak, behar dute onga-

rri guztia doan. Eta onura ugari ditu: hezetasunari eutsi, lurra elikatuko duten mikroorganismoei lagundu, xomorroen etxe izan... Ez pilatu inoiz enborraren ipurdian. Hosto eskasia bada, ekarri luarra.

Gogoan izan, ongarrizkeko ongarririk kimiko edo sintetikorik ez erabili. Batetik gure landareen lozorrotze eta erretze zikloak aldrebestu ditzakete eta bestetik ingurumen-inpaktu handiak eragiten dituzte, nabarmenenak uren kutsadura eta lurrari bizia ematen dioten mikroorganismoen genozidioa.

Ongarriketari arau bat bada zorrotz bete beharrekoa: gehiago ez da hobe. ●



## OTXANTEGI HERRI LURRA

## LURRA NEGOZIOA EGITEKO ALA ELIKADURA ETA BIZITZA DUINERAKO?



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**L**urra espekulaziorako eta dirua egiteko helburu bakarrarekin darrabiltzaten jabeak badira Euskal Herriko hamaika txokotan; horren adibide nagusi izan dira azken urteotan Arbonako, Senpereko eta Kanboko esperientziak. Baina Hego Euskal Herrian ere badira antzeko kasuak; Uribe Kostan, esaterako, Berangoko Otxantegi Herri Lurra proiektua erresistentzian ari da lursail horretan egin nahi duten hirigintza egitasmoen aurrean. “Hirigintza planak nekazaritzarako oztopo dira, eta hau adibide bat baizik ez da”, salatu du proiektuko kideak. Iaztik, ortu komunala martxan dute Otxantegiko lurretan. Beste behin, bizitza vs. kapitala.

### LURRAK BERRESKURATU, HERRITARREN ESKU JARTZEKO

Egungo krisi ekosozialari erantzuteko asmoz abiatu zuen proiektua Berangoko gazte talde batek, eta hiru zutabe ditu: elikadura burujabetza sustatzea, etxebizitza eskubidea aldarrikatzea eta aisialdi eredu alternatiboak eraikitzea. “Elikadura burujabetzan, iaz hasi ginen Otxantegiko lurretan ortu komunala egiten, uste baitugu egungo krisian lehen sektorea indartu beharra dagoela”, azaldu dute. Eukalipto eta pinu landaketek eta enpresa eta lurjabe handien mesedetara diseinatutako hirigintza planek guztiz oztopatzen dute nekazaritza proiektuak abiatzeko aukera Uribe Kostan, eta horregatik erabaki zuten lurra berreskuratzea eta bertan baratzea eta bestelako ekimenak martxan jartzea.

“Inguru honetan lehen sektorea indartsu zegoen garai batean, baina gaur egun ez dago harreman handiegirik, eta beraz, ortua kaletarrei hurbiltzea ere bada gure asmoa”, diote. Asanbalda



bidez erabakitzen dute zer eta zenbat erein, eta auzolanean egiten dituzte ortuko lanak. “Uzta kide guztien artean banatzen dugu, eta dohaintzak ere egin izan ditugu”. Hamar bat lagun modu finkoan ari dira ortuan, baina zenbait auzolanetan 30 lagun bildu direla kontatu dute.

### HARREMANAK ETA SAREA EGITEA

Aguirre-Lipperheide familiarena da Otxantegiko dorretxearen inguruko lurren zatirik handiena. Haiek dira Berangoko lur azaleraren zazpirenaren jabe, eta proiektuko kideek salatu dutenez, 30 milioi irabazi nahi dituzte hirigintza proiektuarekin. “20 bat urte daramatzate proiektu honekin, eta Berangoko Udalak faborezko tratua ematen die”, salatu dute. Otxantegi Herri Lurretik diotenez,

udalak hirigintza plana etxebizitza eskubidea bermatzeko egitasmo bezala saldu arren, benetan etxebizitza arazoa konpontzeko ezer gutxi ari dira egiten. “Guk etxebizitza eskubidea aldarrikatzen dugu, baina hirigintza eredu honen aurka gaude”, diote.

Bestetik, Otxantegikoa herritarren aisialdirako eta sarea egiteko gune garrantzitsua dela aldarrikatzen dute. “Eskualdeko euskara berreskuratzeke ekimenak egin ditugu, liburu aurkezpenak, jai alternatiboak...”. Abenduaren 23an, esaterako, neguko solstizioaren ospakizuna egingen dute. Azaro bukarran antolatutako erresistentziari esker desalojatuak izatea ekidin zuten, baina proiektuaren etorkizunari kezka begiratzen diote kideek. “Argi dugu erresistentziarekin jarraituko dugula”, diote. ●

## ARGIA NAZIOARTEAN



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ezkerrean, kongresuaren emaitza jasotzen duen liburua, eta eskuinean, Lander Arbelaitzek ARGIAz idatzitako orrialde bi ikusten dira.

## Vienako konferentziaren fruituak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**A**RGIAren enpresa eredu mundura zabaltzeko beste pauso bat heldu da. Joan den urteko maiatzean Lasarte-Oriako bulegoetatik Vienarako (Austria) bidaia egin zuten hiru lagunek *Jabetza, hedabideak, publikoa* konferentzian parte hartzeko eta han esandakoak bildu dituzte orain liburu batean. Ehun urtetik gora dituen hedabide txiki honen enpresa ereduaz aritu zen Lander Arbelaitz lankidea *Hedabideen jabetza kapitalismotik harago* mahai-inguruan eta paperera ekarri dituzte han hitz egindakoak.

Alemanez irakur daiteke argitalpenaren parterik handiena, baina ARGIAren zatia, esaterako, ingelesez dago, beste zenbaiten kasuan bezala. 500 orriko liburu mardula argitaratu du Komunikazio Zientzia Kritikoen Sareak, *Eigentum, Medien, Öffentlichkeit* izenburupean (Jabetza, hedabideak, publikoa; duela urte eta erdi antolatutako konferentziaren izen bera du).

### ARGIA-REN PARTE-HARTZEA

Alemaniko *Jacobin* aldizkariko erre-dakzio buruarekin, Vienako Orange irratiko libreko zuzendariarekin eta Ekialdeko Europako *Baricada* hedabide digitaleko kidearekin batera gonbidatu zuten ARGIA hedabideen jabetzaren inguruko mahai-inguru hartara eta bertan mintzatu zen Lander Arbelaitz komunikabide honen sorreraz, ibilbideaz, bilakaez, enpresa ereduaz (langileena dela azpimarratuz), soldaten formulaz, etab. Gerora eskatu diote artikulu batean biltzeko han esanak. *ARGIA: Worker-owned basque centenary media* (ARGIA: langileen jabetzan den ehun urtetik gorako euskal hedabidea). ARGIAren webgunean ere, topa dezakezu osorik testua: [www.argia.eus/albiste/argia-worker-owned-basque-centenary-media](http://www.argia.eus/albiste/argia-worker-owned-basque-centenary-media).

Austriatik bueltan Peru Iparragirrek egindako kronika mamitsua leitu nahi duena sar dadila lotura honetan: [## Ongi etorri komunitatera!](http://www.argia.eus/argia-astekaria/2781/heda-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei komunitatera!



“Jakoba jarraitzen dugu eta horren bidez heldu gara ARGIAk egiten duen lana ezagutzera. Eta *Gure Heroiak* liburua irakurri nuenean, harpidetza egin behar nuela erabaki nuen”.

**Durangotik Aitorrek**

“Euskaraz tokiko eta kanpoko berri eta erreportaje libreak irakurri nahi ditudalako”.

**Bokaletik Bixentek**


“Onak zaretelako, info ona behar dudalako, militantziaz”.

**Donostiatik Eliasek**

bideen-jabetza-kapitalismotik-harago. Hor aipatzen da ia %100 alemanez izan zen konferentzia jarraitzeko ondoan izan zituzten xuxurlarien egitekoa, eta une batean egin dut amets, irudikatuz Lander Arbelaitz mahai-inguru horretan euskaraz, entzuleek alboan ulermenlaguntzaileak dituztela. Baina urrutiegi joan zait gogo, asteburu honetan bertan tokatu baitzait lagunartera iritsi eta konturatzea euskaldun guztiak gaztekeraz dantzan ari direla, euskaraz hitz egiten ez duen bat dagoelako tartean.

Ametsak oraingo amets, errealtatea dugu ARGIAk langileena duela enpresa, Europan batzuei interesa piztu diela euskaraz egiten duen komunikabide independente honen ereduak eta nahi duenak eskuragarri duela argitaratu berri den liburua [krikowi.net](http://krikowi.net) webgunean. Eta, noski, lizentzia libreetan oinarrituta osatu dutenez, baduzu eros-teko aukera, baita dohainik deskargatzeko ere. ●

# Turismoaren aldeko jauregia



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**D**onostia, 1865. Hiriko harresiak bota eta bi urtera, Gipuzkoako Ingeñariaren Elkarteak memoria bat idatzi zuen, badiako ezkerreko sarrera, Igeldo eta Santa Klara artekoa, ixteko proposamena jasotzen zuena. Modu horretan, badia portu handi bat izango zen eta ekimenak hiriaren merkataritza izaera izugarri indartuko zuen. Aukera hori ia 70 urtez egon zen mahai gainean; hainbat belaunalditako donostiarrek gogoko zuten proiektua, baina arazo bat ikusten zuten: superportuak hondartzei kalte eragingo zien.

Bestela esanda, merkataritza edo turismoa lehenetsi behar zuten. Eta Espainiako errege familia izan zen bigarrenaren aldeko hautua behartu zuena. XIX. mendean erdialdean, Isabel II.a erreginari itsasoan bainuak hartzeko gomendatu zioten eta, horretarako, udaldiak Donostian pasatzen hasi zen. Eta 1885ean, Isabelen seme Alfontso XII.a hil zenean, alargunak, Maria Kristina Habsburgo-Lorenakoak udan gortea Madrildik Donostiara aldatzea erabaki zuen. Baina horretarako Errege Landa Etxe bat behar zuten. Erreginak badiari begira zegoen 80.000 metro koadroko hazienda bat erosi zuen, eta jauregia eraikitzeko proiektua Ralph Selden Wornum arkitekto ingelesari eskatu zion 1889an. Proiektua Jose Goicoa arkitektoak gauzatu zuen arren, Miramar jauregiak Selden Wornumek eman zion estilo ingelesa izango zuen.

Erreginarekin batera gortesauk ere uda Donostian eman behar zuten, no-



L.L./GIPUZKOA KULTURA

bleziako kideak Miramarren inguruan, nagusiki Ondarretan beren udako jauregi eta etxeak eraikitzen hasi ziren. Eta eraikin horiek ugalduta ahala, Donostiako merkataritza-portuaren ideia lausotuz joan zen.

Maria Kristina 1929an hil zen, eta jauregiak ez zuen luzaroan iraungo Alfontso XIII.a semearen eskuetan; 1931n Errepublikak jauregia desjabetu eta udalaren eskuetan utzi zuen. Francok itzuli zion jauregia errege familiari, 1958an, zehazki Joan Borboikoari. Azkenik, 1972an udalak Joani erosi behar izan zizkion jauregia eta inguruko lurra -edo jabetzaren barruan geratzen zire-

nak behintzat, lurren erdiak ordurako salduak baitzituen Borboiak-.

Azken hamarkadatan hainbat erakunderen egoitza izan da Miramar: Eusko Ikaskuntza, Musikene, EHuko udako ikastaroak... Eta horretarako hainbat eraberritze lan egin behar izan dituzte. Esaterako, 2001ean, Musikenerako ikasgelak prestatzeko lanak egin zituzten. Eta orain, 2024an beste egokitze lan batzuk abiatuko dira jauregian; Eusko Jaurlaritzak 1,2 milioi euroko aurrekontua bideratuko du horretarako. Eta Miramar jauregiak baztertutako merkataritza-izaeraren ikur izaten jarraituko du, monarkiaren turismoaren alde egin zuen hautuaren ikur. ●



NIKITA GOLOVANOY

## Gotorlekurik zaharrena

Siberiako taiga duela 8.000 urteko gotorlekua topatu dute Berlingo Freie Universität-eko ikerlariak, inoizko zaharrena. Gotorlekuak Iraultza Neolitikoarekin batera iritsi zirela uste izan da luzaroan, nekazaritzak komunitateak egonkortzea ekarri zuelako. Baina duela 8.000 urteko Siberiako komunitateak ehiztari-biltzai-

leak ziren, nomadak izan ohi direnak. Zerk bultzatu zituen, orduan, sedentarismora? Ikerlarien lehen hipotesia da oso eremu emankorra zela eta, beraz, bertako biztanleek ez zutela ez mugitzeko ez nekazaritza garatzeko beharrik izan komunitatearentzako elikagaiak eta bestelako baliabideak eskuratzeko. ●

## ALDAKETA BIZI ERAKUSKETA, EUSKADIKO ARKITEKTURA INSTITUTUAN

# Aldaketa bizi

Heideggerrek 1951n konferentzia bat eman zuen *Eraiki, bizi eta pentsatu* izenburupean. II. Mundu Gerrak erabat suntsitutako Alemaniako errautsetatik hausnartutako ideiak jaso zituen bertan. Nola berreraiki herrialde bat hondamenditik? Nola erantzun urgentziazko etxebizitza eskasia bati? Nola sortu etorkizuneko bizikidetza sostengatuko duen hiri-modeloa? Galdera horiek egungo testuinguru politiko eta sozialean erabateko gaurkotasuna dute, baita sormen ikuspegitik, gizatasunez eta tentuz erantzunak izateko premia ere. Berreraiki, berpiztu eta berrasmatu dira, beraz, Mugak Arkitektura Bienalaren erakusketa zentrala oinarritzen duten zutabeak.

 JONE ALAITZ URIARTE

**U**dazken honetan antolatu da Mugak Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienalaren laugarren edizioa. Aurtengoak EAEko hiriburueta hedatu den askotariko programazioa bildu du, konferentzia, mahai inguru, ibilaldi, pabilioi efimero eta erakusketa ezberdinen bitartez. Aipatzekoak, adibidez, *disco-TEKAK*. *Bumping-aren tenpluak Gipuzkoako kostaldean* ekimena: Gipuzkoako kostaldeko diskotekak bisitatzeko BeAr Architects arkitektura estudioak proposatu duen ibilbidea edo *ruta*, jada gure memoria kolektiboan leku mitikoak diren Txitxarro, JazzBerri, Venecia edo Itzela tenpluak bisitatzeko egitasmoa. Beatriz Colomina arkitektura historialariaren hitzaldia edo 2012. urtean Pritzker arkitektura sari ospetsua irabazi zuen Wan Shu-ren hitzaldia Donostiako Kursaallean izan dira, besteak beste, biurtekoaren programan batutakoak.

Maratoi-ekintza horien guztien artetik, *Aldaketa bizi* izenburua daraman erakusketa handia bisitatzera gerturatu gara Euskadiko Arkitektura Institutura, bienalaren epizentrorra. Maria Arana arkitekto bilbotarrak egin du erakusketa-aren komisiariotza, baita bienalekoa ere, eta bere ibilbide profesionalean landu dituen kezka eta interesguneek badute isla proposatu duen programan. Donostiako Alde Zaharrean dagoen Santa Teresa komentua da egun Euskadiko arkitektoen egoitza, eta erakusketak aurkezteko tokia nahiko korapilatsua eta intuitzeko zaila bada ere, urte batzuetatik hona egin duten ibilbidean proiektu interesgarriak antolatu dituzte, Eileen Grey arkitektuari eskainitako erakusketa kasu (ARGIA, 2.742 zenbakia).

Egungo krisi orokortu eta globalaren aurrean, arkitekturaren diziplinak, eraikuntzatik haratago, eta beste jakintza eta ezagutzekin uztartuta -filoso-

fia, soziologia, zuzenbidea-, funtsezko rola izan dezake ausardiaz eta sormenaz alternatibak proposatzeko garaian. Gizakia guztiaren neurri eta erdigune izan garen antropozeno aroaren ondorio diren aldaketek -kliman, naturan, espezieen iraungitzean, gizakion osasunean- atzera bueltarik ez duen egoera sortu dute. Horregatik, biharko egunari erantzun efektiboak, hausnartuak eta kritikoak emateko, arkitekturaren praktika etorkizuna imajinatu eta gure ingurumena, errekurtsioak eta ezberdinen arteko bizikidetza kontuan izango dituen modelo berriak entseatzeko esparru bilakatu daiteke. Testuinguru horretatik abiatzen da erakusketa, aurrekaririk ez duen krisi eta hondamendi egoera global batetik, alegia.

Beraz, berreraiki, berpiztu eta berrasmatu dira *Aldaketa bizi* erakusketa hezuramaitzen dituzten hiru ardatzak, eta horrela dago banatuta erakusketa ere,

hiru gune edo espaziotan. Erakusketak, edukian forman baino askoz ere egokia-goia, arkitektoek landutako azterketa-kasuak planteatzen ditu.

Atentzioa eman dit Txinako Amateur Architecture Studioaren Ningboko Historia Museoaren ikerketa-kasuak. Ningbo hiria, Txinako ekialdeko kostan kokatua, egun zazpi milioi bizilagun dituen hiri populatua da, baina orain gutxi arte, mendiek eta laborantzarako lursailek osatzen zuten bertako paisaia. Garai berriek ezinbestean dakartzaten hirigintza-berrantolaketekin, gune natural horiek eraitsi eta hiri moderno baterako azpiegiturak eraiki dituzte bertan. Lur eta herri horren memoria gal ez zedin, eta museoa hartuko zuen lur-sailari fidelak izateko, Wang Shu eta Lu Wenyu arkitektoek iraganean eraitsi ziren txabola eta etxeen hondakin eta materialak erabili dituzte museo berria eraikitzeko. Hortaz, hogeita hiru mota adreilutik gora, askotariko teila birrinduez eta orotariko material hondakinez dago jostia museoaren azala, zimurtua dagoen larruazal baten antzera. *Wapan* izenez ezagutzen da eraikuntza eredu hori, guztia eraitsi eta baztertu ordez, aurreko eraikinen materialekin egiten den Ningboko eraikuntza-modelo zaharra. Museoaren formari dagokionez, ortziumagan bistaraten diren mendien forma du eraikinak. Behin barruan, kobak, bailarak, pitzadurak sumatuko ditugu, forma geologikoz egindako paisaia naturala. Herri baten memoria soinean jantzita daraman museoaren eredu da Ningboko.

Berpiztu atalean, Marina Otero Vernizier arkitektoak, Katía Truijen, René Boer eta María Mazzantirekin batera aurkezten duen proiektuan egin dugu geldiduna. *Jabetzearen Arkitekturak* (2019) izenburupean, okupazioaren gaiari heltzen diote, okupazioa praktika arkitektoniko gisa tratatuta. Egunduan, baita konplexurik gabeko publizitate-kanpainatan ere, guztion bistara okupazioaren inguruko mezu ezkorrak eta faltsuak zabaltzen dituzte, okupazioaren praktika nabardurarik gabe kriminalizatuz: tamalez, jabetza pribatua, bizileku bat izateko eskubidearen gaitetik dagoen logikatan mugitzen gara, are gehiago Espainiako Estatuan. Proiektuak, Herbehereetako kasua leku hartuta, okupazioaren logikei beste ikuspuntu batetik begiratzera gonbidatzen gaitu. Herbehereetan, okupazioaren praktika zabalduta dago, eta urtee-



Goian, Wang Shu eta Lu Wenyu-ren lana; behean, Txinako Ningboko Historia Museoa.



tan landu duten ikerketa, erregistro eta artxibo lanaren bitartez ikusi dute okupazioa ondare monumentala babesteko tresna izan dela, komunitate berriak sortu eta bizikidetzarako modelo berriak, negoziatuak eta kontsentsuatuak sortu dituela. Arkitektoek egindako lanak aurrerariak sortu ditu eta Herbehereetako Arkitektura eta Hirigintzako Estatuko Artxiboaren eskuratze politika berria definitzeko oinarria izan da.

Etorkizuneko mundua imajinatzeko saiakeran planteatzen diren proiektuak biltzen dituen atalak, berrasmatu, arkitekturak duen –edo izan beharko lukeen– gaitasun kritikoaz eta pentsamendua sortzeko gaitasunaz hausnartzen du. Beatriz Colomina arkitektoak,

Ignacio G. Galán, Evangelos Kotsioris eta Anna Maria Meister arkitektoekin batera, *Radical Pedagogies* [Pedagogia erradikalak] liburua argitaratu berri dute, hamar urtetako ikerketa lanaren emaitza. Bertan, 1960 eta 1970etako arkitektoek planteatzen zituzten hainbat proiektu pedagogiko, eraldatzaile eta utopiko biltzen dituzte, nolabait esanez askotan atzera begiratu besterik ez dugula egin behar egungo kezkei erantzunak emateko. Sormenezko hezkuntza, pedagogia-sistema eraldatzaileak, inklusiboak eta diziplinaz gaindikoak, izango dira datorkigun eraldaketa sostengatuko duten ezinbesteko zimenduak. Agian ideia horiei bide ematea da egin beharreko lehen pausoa. ●

ZAZPI ENTSEGU WESTERNAREN  
OHIKO MUGETATIK KANPO

# WESTERNAREN MUGAK

Mendebalde basatia guretik oso urrun egon arren, gure iruditeria kultural zein sentimentalean txertatuta dago, batez ere bere adierazpen nagusia tarteko, Mendebaldeko filmak edo westernak. John Fordek edo Howard Hawksek filmatutako lan klasikoak oso identifikagarriak dira arketipoz beteta daudelako, nahiz eta westerna askotariko gaiak jorrazeko eremua izan, hala nola mendekua, maitasuna edo erredentzioa. Filmek, halaber, Mendebaldeko historia ere eraiki dute, eta gizonezko zuriak ondutako kontakizuna izanik, historia horretako hamaika pertsonaia alboratu edo erabat ezkutatu dira, kontaketa jakin eta interesatua hedatzeko.

 JULEN AZPITARTE

**F**ilmetako kontakizunak gehiengotan pistoladun gizon zurien inguruan ardatzuta dira, urteen poderioz westernak hainbat aldaera bizi izan dituen arren. Hain zuzen ere, westernaren eragina hain da handia bere kode eta erreferentziak bestelako generoetan ere antzematen direla. Garapen hori gorabehera, urriak dira oso bestelako pertsonaiak edo istorioak biltzen dituzten westernak; kasu, orain-tsu estreinatutako *Killers of the Flower Moon* (Martin Scorsese, 2023). Quentin Tarantinoren filmografian ere badira zenbait adibide interesgarri.

Oraindik filmatu ez diren bestelako westernak amesteko moduko pistak ematen

ditu *El otro Oeste*. *Siete ensayos desde las fronteras del western* (Beste Mendebaldekoa. Zazpi entsegu westernaren mugetatik). 2021ean Episkaiak argitaratua, zazpi saiakera labur biltzen ditu: lau autore estatubatuar, bi espainiar eta euskaldun bat, Katixa Agirre, zeinak Quentin Tarantinoren *The Hateful Eight* (2015) filma aletu duen western klasikoaren kontrako eredu gisa. Agirrerena da testu zinematografiko bakarra, gainerakoak askotariko eremuetan lokazten dira, besteak beste, cowboy-en grebak, emakume natiboen presentzia eta kolonialismoa. Zazpi begirada kritiko dira, bestelako Mendebaldeko lurralde posible bat amesteko, irudikatze eta gogorarazteko.



## 1. ROXANNE DUNBAR-ORTIZ

Lehenengo testua Roxanne Dunbar-Ortiz historialari eta aktibista estatubatuarri egindako elkarrizketa luzea da, zeinak *Mendebalde Basatia* kolonialismoaren mito gisa aztertzen duen, indiarren triskantza azaltzeko. Horrekin batera, indiarrei lapurtutako lurren afera ere aztertzen du, baita muturreko kolonialismo suntsitzailer horretan etorkinek bete zuten funtzioa ere. “Zuzeneko ikuskizunak –Buffalo Bill Codyk zuzendutako *Mendebalde Basatia* ikuskari ibiltaria–, baita Mendebaldeko filmak ere, ospakizunak ziren kolonoarentzat,

eta, batez ere, garai hartan Europako ekialdetik, erdialdetik eta hegotik iritsi ziren 20 milioitik gora etorkinentzat. Kolonoak heroi bihurtu zituzten, baina etorkinak ere kolono bihurtu zituzten, militarismoaren eta garaipenaren narrazio handiarekiko identifikazio ahalbidetzeko”

Historialariak egiten duen kolonialismoaren lanketa kritikoa Cristobal Colon nabigatzailearen sasoietara ere iristen da: “Aragoi eta Gaztelako erregeztaren zerbitzura zegoen mertzenario bat zen Colon, Penintsula Iberikoan musulmanen eta juduen garbiketa etnikoa gertatu zen garai berean. Europako kolonialismoaren lehen kasua izan zen, zeina Amerikako kolonialismo-genozidioaren eredu bihurtu zen. Colon bigarren mailako aktorea izan zen, baina baita genozidioaren sustatzaile ere”.

## 2. SARAH M.S. PEARSALL

John Hopkins unibertsitateko Sarah M. S. Pearsall ikertzaile eta irakasleak emakume natiboen gaia aztertzen du, emakume horiek Amerikako Iraultzan izan zuten protagonismoa nabarmentzeko. Horretarako Madam Sancho indiarren kasua jorratzen du. Era berean, indiarrek errebolta horretan bizi izan zuten oinazealdietan ere jartzen ditu bere hitzak.

Sasoiko dokumentazioan –gehienbat soldaduen gutunetan– oinarritzen du bere diskurtsoa. “Komunitate (irokes) hauetako emakumeek aspalditik zeukaten buruzagiak aukeratzeko, kontseiluetan parte hartzeko eta gerra egiteko ahalmena. Laborantza-lanerako ere funtsezkoak ziren. Lan horrek baliabideak, egonkortasuna eta boterea bermatzen zituen. 1763an, mohawkek azaldu zioten agente indiar bati emakumeak ‘Benetako Jabeak direla, haiek lantzen baitituzte lurruk’. Historialari batek esaten duenez, ‘herri irokes bat, neurri handi batean, mundu femenino bat zen”.

## 3. MARK LAUSE

Cincinnati Unibertsitateko Mark Lause historia irakasleak Texaseko Pandhandlen gertatutako cowboyen greba aletzen du. Filmetatik urrun dagoen cowboyen irakurketa egiten du irakasleak, non heroi mitifikatu baino langile antolatatu bilakatzen diren nagusiaren gehiegikeriak salatzen eta borrokatzen, gehienbat soldada igoerak

# Zazpi begirada kritiko dira, bestelako Mendebaldeko lurralde posible bat amesteko, irudikatzen eta gogorarazteko

lortzeko. Kasu honetan sasoiko prentsa baliatzen da Lause. Arrantxoetako ugazabek finantzatzen zuten prentsa; beraz, kazetarien kontakizuna buruzagi aldekoa zen, hamaika gezur tarteko: “Antolatu den grebarik ankerrena da. (...) Cowboyek ez dute lanik egingo, eta beren tokia hartuko duen nornahi hilko dutela agindu dute”, Kentuckyko *Semi-weekly Interior Journal* argitalpena.

## 4. ZARON BURNETT III.A

Laugarren testua cowboy klasikoaren iruditik gertuen dagoen atala da: Zaron Burnett III.a kazetariak sinatutako idazkiak Nat Love cowboy beltzaren istorioa kontatzen du, cowboyen laurden bat afroamerikarrak baitziren, nahiz eta errepresentazio tipikoetan beltzik kasik ez agertu. Nat Loven autobiografiatik abiatuta, heroi beltz baten istorioa josten du kazetariak, Nat Loven bizitza Mendebalde beltzean txertatu daitekeen epopeia bat baitirudi. Billy Haurraren laguna izan zen, eta sarritan zamalkatu zuten elkarrekin: “Pat Garrettek Haurra Pete Maxwellen arrantxoan hil zuen eguneko gauean ikusi zuen azkenekoz Natek Billy. Nat Love eta beste cowboy batzuk egun horretan iritsi ziren Lincolneko konderrira, Mexiko Berrian, eta herritik zabaldu zen berria entzun zutenean, Billy Haurraren gorpua ikustera joan ziren. Askok uste dute hori izan zela Mendebalde zahararen amaiera”.

## 5. ALFONS CERVERA

Espainian 1960ko hamarkadan gertatutako Mendebaldeko literatura popularraren eztaba idatzi du Alfons Cervera idazleak. Sekulako loraldia bizi izan zuen AEBetako *pulp* generotik gertu zegoen literatura herrikoi horrek Espainian. Ondorioz, saldoka nobela eta autore agertu ziren. Ia egile horien guztien topiko bat izenorde anglofonoak maiz erabiltzea zen, zentsura frankista zorrotza saihesteko eta irakurle gehiago erakartzeko. Goitizena erabiltzea editorearen inposizioa ere bazen, bildumak nabarmentzeko, eta errepresaliatuen kasuan, berriz, beharra zen, beren benetako identitateak ezkutatzeko. Cerverak “azpiliteratura” horren aldeko aldarria egiten du.

## 6. KATIXA AGIRRE

Katixa Agirre idazle eta unibertsitateko irakaslea Quentin Tarantino zinegilearen unibertsoan murgiltzen da *The Hateful Eight* (2015) filma aztertzen, western klasikoaren aurkako eredu gisara. Era berean, filmaz baliatzen da XXI. mendeko lurralde estatubatuarrari erreposoa egiteko: “Tentsioa agerikoa da: zerbaitegatik halabeharrez elkarrekin bizi behar dute sari-ehiztariak eta bere gatibuak, gaizkileak eta sheriffak, gaizkileak eta borrokoak, hegoko arnegariak eta ofizial yankiak. Zuriak beltza gorrotatzen du, beltzak mexikarra gorrotatzen du, eta guztiak, finean, emakumea gorrotatzen dute”.

## 7. MARIA BONETE ESCOTO

Azkenik, Maria Bonete Escoto idazleak western kulturari eta *country* musikari buruzko saiakera egin du, historikoki balio tradizionalekin lotzen diren bi eremu horien bestelako irakurketa egiteko. Horretarako, Orville Peck musikari xelebrearen estetikaz eta jarreraz baliatu da. Jaiotzaz hegoafrikarra, Kanadan finkatutako musikaria da Peck. Mozorrotuta ateratzen da jotzera, maskarapean, country musikaren ohiko diskurtsoa eta esterotipoak hankaz gora jartzeko asmoz. “Peckek bi gauza egiten ditu: baitetik, cowboya aldarrikatzen du, muga, iragate-gune hori, non AEBek etengabe bilatzen duten beren burua; eta, bestetik, irauli, parodiatu eta besarkatu egiten du lotsarik gabe. Dena da gezurra, baina egia ere bada, esaten digu Peckek: ez da distirarik gelditzen Mendebaldean, baina mitoak ez dira inoiz hiltzen”. ●



# Mundu honetan



## NESKA JAIOTZEA

ALICE DUSSUTOUR

TTARTTALO, 2023

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

**H**itzaurrean Clémentine Beauvaisek esaten duen moduan, neska jaiotzea eta neska egiteaz ari da Dussutour liburu honetan. Feminismotik Beauvoirri hartu diogun *emakumea egin egiten da* esaldiak zentzu osoa hartzen du liburuan; izan ere, sistema heteropatriarkal kapitalistak (bai, oraingoan osorik jarri nahi izan dut hitz potolo guztiakin) nolakoak izan behar dugun erakusteko munduko komunitate desberdinetan dituen trikimailu batzuk erakusten dizkigu hainbat adibideren bitartez: tabuak, inposaketak, tradizioa, sinismenak, boterea... Horrez gain, emakumeek horri aurre egiteko dituzten estrategiak ere ikus ditzakegu. Horregatik, haserrea eta amorrua sortzeaz gain, esperantza eta goxotasuna ere pizten ditu liburuak, baita bizitza hobeko bat amesten jarraitzeko ilusioa ere.

Gaur egungo mundu zabaleko bost kokaleku eta bost pertsonaia aukeratzen ditu autoreak emakume jaiotzearen ondorioez eta albo kalteez hitz egiteko. Nepalgo Kaneilak, Euskal Herriko Elaiak, Afganistango Mahnooshek, Kenyako Makenak eta Mexikoko Luisak kapitulu bana dute. Kapitulu guztiek egitura bera dute (bi atalez osatua): lehenengo, pertsonaia bakoitzak bere testigantza emango du lehenengo pertsonan. Testigantzaaren hasieran egoera gordinena kontatzen dute protagonistek eta bukaeran zirrikitu bat irekitzen zaio itxaropenari. Horren ostean, egileak "dokumentazioa" deitu dion zatia hasiko da: hitz batzuen esanahiak argitzen dira, galdera batzuk erantzuten eta datu batzuk ematen.


Bi atalak daude ilustraturik. Kolore deigarritz osatuta dago, bistara deiga-

riak eta erakargarriak. Koloreen erabilera plano samarra dela esango nuke, baina beraien funtzioa ongi betetzen dute. Irudi batzuk testuen lagungarri izango dira eta beste batzuetan orri osoa hartuko dute. Kasu honetan iradokitzailegoak direla iruditu zait niri.

Eta, kolofoi gisa, egilearen hitzostea eta kapitulu bakoitzari dagokion dokumentazio eta bibliografia gehigarria aurki daiteke: elkartekak, filmak, pertsonaia ezagunak, liburuak, jardunaldiak eta abar.

Irakurketa erraza duen arren, ez da esperientzia arina. Entrenitzeko baino, informazioa eskuratzeko liburuak izanik, entziklopedia baten moduan funtziona baitezake. Heldu eta haur eta gazteek elkarrekin irakur dezaketzen materiala da, eskolan, etxean edo irakurle taldeetan. Askorako eman dezakeela uste dut. ●





MUSIKA

# Urteroko opari fisikoa

IKER BARANDIARAN

**B**itxia da *Entzun* aldizkaria. 1990eko hamarkadan sortua, euskarazko musika aldizkari aitzindaria da eta bakarra *-Izu Giroa* hardcore-punk fanzinea salbu-. Desagertzeaz egon bazen ere, bizirik jarraitzen du, nahiz eta azken hamarkadatan urtean behin bakarrik ikusten duen argia, urtekari gisa eta modu fisikoan: liburuan. Hala deitu arren, ez da espresuki urtekari bat, ez baitu urtean jasotako guztia batzeko asmorik. Hala, urteak musikagintzan Euskal Herrian eman duenaren lagin interesgarria eta mamitsua ekartzen

du beti dozenaka egileren erreportaje, elkarrizketa, argazki zein iruzkinen birtartez. Eta ia beti kantu bilduma bat ere jasotzen du.

2023koan ere hala izan da, eta are eta fisikoagoa gainera: biniloan kalera-tu dute bilduma lehenengoz, eta batu dituzte argitaratu gabeak edo euskarri fisikoan orain arte plazaratuta ez diren hamaika kantu.

Euskal Herriko synth-elektro-punkaren aitzindari Munlet-ek (argazkian) zabaltzen du diskoa Devo-ri gorazarre ginez. Atzetik dator Otoi intriga eta sen-



## ENTZUN BILDUMA 2023

### ASKOREN ARTEAN

ERAGIN



timenduz jositako post eta pop-rocka lantzen. Mice-k ariketa berezia eskaini digu, gaztetako Patti Smith-en energia eta kadentzia duen perla basatia, Zabalako espetxean grabatua. Arima Soul, DJ Farrapo-ren laguntzarekin, are eta dantzagarriagoa bilakatu da soul, doinu latino, electroswing eta elektronikarekin. Niña Coyote eta Chica Tornado-k Txile-n estudio batean inprobisatutako pieza pisutsu garbi eta distiratu oparitu digu.

B alde, bestalde, swing eta gipsy musikaren hastapenetan arakatzen duen Erromintxelak talde arrasatearrak zabaldu du. Gailu-k azkenean argitara eman du zuzenean gozarazten digun Sleaford Mods taldearen *Atzeak musukatzen* bertsioa. Petti handiak irautgitze datarik gabeko *Egun bat gehiago hit!*-aren lehen tomari, Berako Aduanan jaso, hautsa kendu eta distiratu plazaratu du. Irungo Bobbi Relac multi-instrumentistak giro eta bidaia desberdinetan (exotikoa, psikodelia...) murgilduarazi gaitu. Uger-ek tanta psikodelikoak batzen dituen kantu baikorra erregistratu du. Eta, azkenik, Muare bikoteak goxotasuna eta esperimentazioa batu ditu sehaskan. ●



# Enpatia gaindosia

UXUE GUTIERREZ LORENZO  TANTTAKA TEATROA

**B**izipenak kontatzearen indarra. Are, idatziz adieraztearen premia eta *pribilegioa*. Horrelako baieztapen *simple* batetik abiatzen du Maryk lehen pertsonan kontaturiko istorioa. 1830ko landa eremuko Ingalaterran bizi da Mary. Baserriko neska da, herrena eta esnearen kolorekoa du ilea. Ahizparekin, gurasoekin eta aitonarekin bizi da, eta lanaren kultura beste bizimodurik ez du ezagutzen. Maryk ez daki (edo ez zekien) idazten eta irakurtzen. Alfabetatzea lortzen du Maryk, bai, prezio altua ordainduta. Prozesu traumatiko hari esker, ordea, gertatu zitzaionaren lekukotza eman dezake. Gertakariak jakinaraztearen aldarrikapena egiterako igo da gaurkoan Mary oholtzara.

Zer gertatu zaizu, bada, Mary? Jakin-minak eta pertsonaiaren erraietan barrena bidaiatzeko grinak bultzatuta murgildu naiz antezelanean. Arriaga an-

tzokia erdizka beteta, euskarazko estreinaldia, eleberrri baten egokitzapena eta sei euskal aktore oholtzan.

Klase gatazka, lanaren kultura, familiaren indarra, genero indarkeria, boterea, fedea... Asko dira obra zeharkatzen duten gai potoloak, bi mende berandua ere aise uler daitezkeenak. Gaztea da Mary, argia, burugogorra, irudimentsua, ausarta eta errebeldea. Miseriak eta injustiziek harilkatzen dute neskatoaren bizitza, eta etengabe kuestionatzen eta konfrontatzen du bizi duen errealitatea.

Gaurkoan, Aitziber Garmendia da Mary. Umoretsua da Mary, bizia eta oso irribarretsua, nahiz eta hura ezabaten tematzen diren batzuk istorio honetan.

Aitak bikarioaren etxera bidaltzen du Mary neskame gisa lanera. Baserriko bizitza gorroto du Maryk, baina laster somatuko du bere eguneroko gordinaren falta. Halabeharrez, inguru arrotz ba-

## ESNEAREN KOLOREKOA

**KONPAINIA:** Tanttaka teatroa.

**NOIZ:** Abenduaren 3an.

**NON:** Arriaga antzokian (Bilbo).



tean murgiltzen da. Bikarioak irakasten dio irakurtzen eta idazten; eta, ondorioz, ematen dizkio bere istorioa kontatzeko baliabideak. Era berean, bera da Maryren patu lazarriaren muina eta erantzulea. Bikarioaren bortxak bultzatzen dute Mary amildegira, eta belzten dute haren etorkizuna.

Maryk argi adierazten du hasieratik: "Nire istorioa kontatuko dizuet, jasota gera dadin. Idatziz kontatuko dizuet, hitzak galdu egiten direlako". Kontatzea da Maryren askatasuna eta kondena, patuak zigortu zuen bere gorputza eta kontakizunak askatu bere istorioa gaur, hemen eta orain. Ziegatik mintzo da Mary, eta bertan idatzi du gertatu zitzaiona. 2023ko abenduan, Arriaga antzokian, 1830eko Ingalaterran jazotakoak izugarritzko indarra du Maryren hitzetan. Maryren legatuaren oihartzuna jaso du ikusleak, haren larruan jartzerraino. ●



## Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA PELLO ZUBIRIAK ARGITARATU BERRI DUEN "PLANETA PREKARIOAN" LIBURUAREN DESKRIBAPEN TXIKI BAT IRAKURRIKO DUZU.



## Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

6	2		3			9		
	4				2	8	3	5
5	3			9			4	
			2		3		6	
	8			5				3
				6	1			9
		5	9				8	4
8		3		2	4	5	7	
2		4					9	

ERRAZA


			8					5
	4		1	5	7		2	
			9	4	3	8	6	
		5					9	
	8	7	5		1			3
	2	4	6					
		9		1				
			3					4
4			7			9		1

ZAILA

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kolpe baten onomatopeia.
2. Martxan. 3. Potasio nitrato.
4. Sakona 5. Zakoteak.



## Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				D	I	M	E	N
2	A				R	E	L	A
3	I	R				R	L	E
4	E	S	K				D	A
5	D	E	B	L				I
6	A	N	P	U	L			

## EBAZPENAK

2	6	4	5	8	7	3	9	1
8	9	3	1	2	4	5	7	6
7	1	5	9	3	6	2	8	4
3	7	2	8	6	1	4	5	9
1	8	6	4	5	9	7	2	3
4	5	9	2	7	3	1	6	8
5	3	1	7	9	8	6	4	2
9	4	7	6	1	2	8	3	5
6	2	8	3	4	5	9	1	7

ERRAZA

4	6	2	7	8	5	9	3	1
5	1	8	9	6	2	7	4	
3	7	9	2	1	4	5	8	6
1	2	4	6	3	9	7	5	8
9	8	7	5	2	1	6	4	3
6	3	5	4	7	8	1	9	2
8	4	6	1	5	7	3	2	9
7	9	3	8	6	2	4	1	5

ZAILA

**PUZLEA:** "KONTINENTE GUZTIAKO GERTAEAK, HISTORIAK, BIZIPIENAK, DATUAK ETA ANALISIAK TOPATUKO DITUZU ORRIALDEOTAN, LASTORIK GABEKO IDAZKERA FIN ERABILITA."  
**5XS:** 1. DANBA, 2. ABIAN, 3. NITRO, 4. BARNA, 5. ANOAK.  
**HIZKI BERAK:** 1. KAUDIMEN, 2. AKUARELA, 3. IRAKURLE, 4. ESKUKADA, 5. DEBLAUKI, 6. ANPULUAK.

# Natalia López

LA REINA



## ERRESISTENTZIARAKO TRESNA

“Aita artista denez, txikitatik sortu dit interesa arteak. Umetan eskuekin gauzak egiten aritzen nintzen; adibidez, eskulturak egiten nituen, eta marraztu eta margotu. Hala ere, niretzat garrantzitsuena da artea sistemari aurre egiteko erresistentzia tresna bat dela. Uste dut, arteari esker, sistemarekin oso egoskorra naizela. Horregatik, zaila izan arren, artearen bidetik jarraitu nahi dut. Hala ere, Latinoamerikan oso gutxi babesten denez, oso erraza da amore ematea”.

## “Aitarekin dudan lotura aireak mantendu du beti”

Migrazio prozesuek etorkinengan duten eragina aztertu du Natalia López artistak (Bogota, Kolonbia, 1978). Horretarako hiru saioko prozesu sendatzaile bat gidatu, eta bizitakoa jaso du *Nire maitasun guztia airearen bidez bidaltzen dizut* erakusketan. Uhartan, Burlatan eta Atarrabian (Nafarroa) bizi diren zenbait etorkinekin elkarlanean sortu du. Erakusketa ikusgai dago urtarrilaren 14ra arte Atarrabiako San Andres errota. Bartzelonako Idensitat proiektuaren eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Fundazioaren egonaldi artistiko baten parte da proiektua.

 OLAIA L. GARAIALDE  ERAKUSKETAK UTZIAK

### Airea oso agerian dago zure lanean; nola ulertzen duzu airea?

Askotan egin dut lan naturako elementuekin, baina beti ingurumenaren ikuspegitik. Proiektu honetan, aldiz, esanahi politikoa aurkitu nuen. Airearen bidez gauza asko bidali edo adierazi daitezke; hala nola maitasuna eta mina. Aire munduko bazter guztietan dago. Gainera, ez duenez mugarik, erresistentziarako elementu politiko bat da. Proiektu honetan, ingurumenari erreparatu baino gehiago, ikuspegi politikoan eta afektiboan jarri dut indarra.

### Lana sortzeko premisa bat airea lantzea zen. Errazagoa da premisa batetik abiatzea, edo mugatzailea izan daiteke?

Nire kasuan, proiektuan parte hartzeko arrazoia izan zen. Nire aita etorkina da, eta arrazoi ekonomikoengatik eta politikoengatik hama-

bi urte ziren ikusten ez nuela. Lagun batek deialdia ikusi, eta pentsatu zuen oso aproposa izan zitekeela niretzat, askotan lan egin dudalako airearekin. Deialdia ikusi nuenean, aitarekin egon ahal izatea ideia ona izan zitekeela iruditu zitzaidan. Segituan, aireak aitarekin dudan harremanean izan duen eraginaz pentsatzen hasi nintzen.

### Zer-nolako eragina izan du?

35 urtez aita eta biok gutunen, deien eta posta elektronikoaren bidez egon gara konektatuta, eta horiek erabiltzeko airea behar dugu. Horregatik, elkarren artean konektatzen gintuen airean jarri nahi izan nuen arreta. Aitarekin konektatuta mantendu nau; aitarekin dudan lotura aireak mantendu duelako beti.

### Horregatik ardaztu duzu lan prozesua etorkinen inguruan eta



“Etorkinentzat espazio bat sortu nahi nuen, haiek mina eta urrun daudenekiko maitasuna adierazi ahal izateko”.

**harremanetan?**

Etorkinekin lan egin nahi nuen, ikasi nahi nuelako aitak zer bizi izan zuen, eta nola bizi izan zuen elkarrengandik urrun egoitea. Nire mina osatzeko proiektua izateaz gain, etorkinentzat espazio bat sortu nahi nuen, haiek mina eta urrun daudenekiko maitasuna adierazi ahal izateko.

**Horretarako topaketa afektibo eta poetikoak egin zenituzten; nola joan ziren?**

Antzinako kulturen inguruan ikertzen ari naiz Kolonbian. Kultura indigenetan prozesu sendatzaileek hiru fase dituzte; eskerrak ematea, garbiketa eta gozatzea. Horregatik, lehenengo faserako borobil bat egin, eta hitz egiteko espazio bat sortu genuen. Helburua zen konfiantzazko espazio bat sortzea maitasunaz edo minaz hitz egiteko, baina bihotzetik; hau da, inor eraso, epaitu eta kritikatu gabe, eta entzuten. Ostean, eskerrak emateko erri-tua egiten genuen. Horretarako, haziak

landatu eta inguruan ditugun gauza onen inguruan hausnartu genuen.

**Urarekin zerikusia zuen bigarrenak. Zer egin zenuten?**

Borobil bat egin, eta idaztea esatea baino errazagoa denez, sentitzen genuena idatzi genuen. Helburua zen paperaren bidez tristura, amorrua eta beste emozio batzuk azaleratzea. Ostean, ozen esatea proposatu nien. Azkenik, esandakoa harri batzuetan idatzi eta errekarabota genituen. Indigenek uste dute urak garbitzen laguntzen duela, eta nik konfiantza dut horretan.

**Nolakoa izan zen azkena?**

Erritual gozoa deitzen diot. Borobil bat egin, eta paper batean idazten hasi ginen. Ostean, paperean idatzitakoa ahoz partekatzeak aukera egon zen. Azkenik, haizearen bidez zabaltzen diren haziak askatu genituen. Gehienek gerraren eta urrun dituzten senideen inguruan idatzi zuten.

**Gehienek ez zenuten elkar ezagutzen; zaila izan da konfiantzazko giroa sortzea?**

Uste nuen zailagoa izanen zela. Izugarria iruditu zait hiru egunetan sortu dugun maitasuna eta adiskidetasuna. Erljio, herrialde, kultura, adin eta pentsamendu ezberdinetakoak izan arren, berdinen artean egin izanak konfiantza eta adiskidetasuna sortu du.

**Zein ondorio atera dituzue?**

Nabarmendu dugu gauza asko gordetzen ditugula eta ez diegula espaziorik ematen emozioei. Ez dugu denbora hartzen maitasuna adierazteko, esateko zerk ematen digun mina, eta eskertzeko. Ez dugunez adierazten zer sentitzen dugun, barnean zokoratu ta gelditzen dira emozioak. Horregatik, ikusi dugu oso garrantzitsua dela adierazteko espazioak sortzea. Gainera, uste baina sinpleago da espazioak sortzea. ●

# Sinestedunak eta sinesgabeak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**B**atuetan, esaldi bakar batek justifikatzen du liburu osoa. Adibidez, Julian Barnesen *Nothing to be Frightened Of*, zeinaren lehen lerroan honakoa irakurriko duzun: “Ez dut jainkoarengan sinesten, baina haren falta nabari dut”. Ez baitira bateraezinak fedebakotasuna eta fedemina. Izan zaitezke ateo totala eta, hala ere, sinestedunei inbidia pixka batez begiratu, sikiera haiek igande goizero badutelako plana finkatuta. Zuk berriz, aste osoan erdi-ondo deskantsatuta harrapatu zaituen oilarite bakarrean, kafesnea berotzen ari den bitartean eskua pijamapean sartu eta ipurmasail bati hazka egiten diozularik, “eta orain, zer?” galdezka ikusten duzu zure burua.

XXI. mendean, dena den, zerbitzu eta produktu berriz inguratuta bizi gara eta kristauen atzetik mezara joan nahi ez duenarentzat ez da hain konplikatu entretenimenduren bat aurkitzea igande goizeko hutsune existentziala betetzeko. Pasa den jaian, adibidez, Bilboko Euskalduna jauregian ez zen saltarik falta: Ines Osinagaren eta Joseba Sarrionandiaren errezitaldi musikatuak; Bakartxo Ruizen eta Joseba Asironen antzezlanak; eta eguneko platera: Pello Otxandianoren *speech*-a EH Bilduren lehendakariari trajea jantzita –ez da figura erretorikoa: Otegik gauza inportanteak esateko erabiltzen dituen jaka horietako batekin salto egin zuen han juntatu zen afizioaren aurrera–.

Konparazio hetero-futbolero bat egin beharko balitz, esango nuke hura izan zela fitxaketa berriak aurkezteko egiten diren agerraldi horietako bat. Eta horrelakoetan, badakizu, gauza asko-askorik ere ez da ikusten. Baloiari ukitu batzuk, lau argazki eta asmo-de-



klarazioak gehienez. Asuntua oraindik berde samar dagoela antzeman zen hitzaldiaren ideia indartsuetan ere batere kanbiatu ez zen prosodia monotonoan; eta Otxandianori nabaritzen zaio bere perfil pertsonala erakusteko halako pudore bat. Aurrendenboraldian dago.

Edo agian horixe da ezker abertzaleak bilatu duena: partidu-partiduko norbait izango da EH Bilduren lehendakariagaia. Alegia, 2012tik hona haien zerrendaren buruan egon izan diren hautagai *celebrity* eta “independentek” ez bezalako norbait. Egongo da kalkuluren bat horren atzean. Demagun: meriendatutzat jo dute Podemosen zeukan espazioa, Gipuzkoan eta Araban lehia nahiko berdinduta aurreikusten dute eta Bizkaiko jende zintzoak limurtzea izan liteke kontua, edozein amaginarrebak nahi lukeen

suhia eskainiz –tipo gazte eta segaila, hitz bat bestea baino altuago esaten ez duena, telekomunikazio ingeniaria: hi etxerako–.

Hori bai, EH Bilduk eta EAJk problema bera izango dute: lan handia egin behar politika instituzionala gertu-gertutik jarraitzen ez duen publikoari –alegia, ia kristo guztiari– beren produktu berriak ezagutarazteko. Datoren hilabeteetan, imajinatu okerre-na: hautagaiak ikusiko dituzu pianoa jotzen, arraunean, elkarre gastronomikoan, Zetaken edo ETSren kontzerturen batean, auskalo. Bi pertsonaiak pixka bat mamitzen diren arte, asko sufrutuko dugu ikusleok. Eta pairamen hori jasateko inolako heldulekurik ez: fede partidistarik gabekook horrelako momentuetan inbidiaz begiratzen diegu zerbaitez sinetsi nahi dutenei. ●

**Abendutik aurrera**

bi astelehenean behin ARGIA  
eta plataforma guztietan

Oraingoan bertsoa  
albora utzita...  
beno, ez erabat :)

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)





*Er da jogurta, Goenaga da*



[www.yogurgoenaga.com](http://www.yogurgoenaga.com)

☎ 943 21 63 27

📞 Whatsapp (+34) 671 10 11 80

✉ [goenaga@yogurgoenaga.com](mailto:goenaga@yogurgoenaga.com)

📍 Pokopandegi Baserria, Igara.  
20018 Donostia.